



abiatzea da zailena

BERTOL ARRIETA



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus



GEURETIK SORTUAK



UDALBILTZA

BERTOL ARRIETA

abiatzea da zailena

OHI BAINO MUSU LUZEAGOA eman zion senarrari, haurrak besarkatu ostean, eta agur egin zien eskuarekin hirurei, igogailuko atea ixten ari zen bitartean. Zaunka soil bat izan zen Lennonen despedida.

—Ama, musukoa! —esan zion Manexek, justu atea itxi aurretik.

Botoiari sakatu behar izan zion Maitanek, guztiz itxi ez zedin. Etxera bueltan sartu, eta bi hartu zituen: musuan jarri zuen bata, poltsan sartu bestea. Bigarrenez agurtu zituen banan-banan senarra, semea, alaba. Baita zakurra ere. Ez zen asko luzatu. Negarrari eusten ari zen Maddi, hobe lehenbailehen alde egitea. Diosal egin zien eskuarekin, atea eskuinetik ezkerrera ixten joan ahala orduan eta txikiagoa zen zirrikitutik.

Beherantz hastearekin batera entzun zituen igogailuko zulotik zetozen txikienaren negarrak, atearen danbatekoak soilik bigundu zizkionak. Eskuarekin xukatu zuen begi ertzean pilatu zitzaion malkoa, masailean behera erortzen utzi baino lehen, eta kalera atera zen. Joder, ezta Madagaskarrera joatekoa balitz ere...

—Abiatzea da zailena, ikusiko dun —esana zion Patriciak bere asmoen berri eman zionean, eta horri heldu behar.

Erreskadan ikusi zituen igarotzen zuhaitzak, farolak, semaforoak, autopistan sartu bitartean. Gero, bakardade osoa, ia trafikorik gabeko bidean. Igande arratseko postala, euri langarraren doinuz lagundua. Eta batez ere isiltasun hura, umeen zaratarik gabeko isiltasun arraro hura, isiltasun atsegin hura, delitu bihurtzen zuena musika jartzea, irratia piztea.

Aspaldi ez bezalako bakea sentitu zuen bere Opel Astraren barruan, Lukianorako bideak iraun zuen ordu eta erdian. Hutsik egin gabe, zuzen-zuzen eraman zuen GPSak Casa Lafuentera.

Berrogeita hamar urte pasatxoko emakume irribarre errazekoak egin zion harrera Casa Lafuenteren. Baratzean ibiltzeko arropa narrasekin jantzia zegoen etxeakoandrea, eskuak lurrez zikinduak, urdintzen hasitako ilea. Hari euskaraz bi hitz egin orduko argitu zion ez zuela tutik ulertzen.

—Nuestros hijos sí, pero nosotros, ni una palabra, maja. Soy Elena. Tú debes de ser Maitane, ¿verdad? Encantada.

Gaztelaniaz arituko ziren handik aurrera.

Aurkezpenak egin zituzten, Zuiako inguruneei buruzko eskuorriak eman zizkion, eta baita hainbat argibide praktiko ere. Baserri atarira atera ziren, ostera.

—Zoragarria da —esan zion Maitanek, handik ikusten zen parajea ederretsiz.

—Lukiano osoan bistarik onenak dituen etxea da —esan zuen Elenak harrokeria izpirik gabe.

Herriko azkeneko baserria baitzen, goren zegoena mendiaren magalean kokatua; hantxe amaitzen zen errepidea. Iturburu batetik zetorren emaria atari ondora ekarria zeukaten, eta txorrotak harrizko aska laukizuzen estuaren kontra egiten zuen murmurio leuna entzuten zen, txorien kantuekin nahas-mahasean. Gozo berotzen zuen eguzkiak, eguna azkenetan zen arren.

Katakume bel-beltz bat zeukan esku artean Elenak, jaio berria, itxuraz.

—Bai polita —esan zuen Maitanek, laztandu bitartean.

—Nahi duzu etxerako? Beste lauz erditu da Mixi, oparitzeko ditugu.

Horixe behar genuen, pentsatu zuen, bi seme-alaba, zakurra, eta orain katua.

—Halako baserri eder bat bagenu... —desenkusatu zen.

—Zatoz, zure gela erakutsiko dizut.

Logela soila baino areago, beheko solairuan kokatutako estudio txiki bat zen, zeinak baserriaren kanpoaldetik baitzeukan sarrera, ate independente batekin. Komuna, sukaldetxea, birentzako adinako ohe zabala, eta leiho bat haranera. Zer gehiago behar zuen?

—Jada ez dut ezer topatuko zabalik Murgian, ezta? —galdetu zion Elenari. Batere jakirik gabe etorria zen: ez makarroi, ez sagar, ez jogurtik. Lau trapu sartu maletan, eta hanka!, presaka irten izan balitz bezala.

—Qué va... —erantzun zion—. Emango dizkizut arrautza batzuk, itxoin.

Haranari beha geratu zen Maitane, etxeakoandrea zain. Behiak ikus zitezkeen bazkatzen han, ezker aldeko larrean; behorrak aurreragokoan; Murgiatik zetorren errepidea aurrez aurre. Eta eskuineko auzo hura ez al zen Aperregi? Eta muino gainean zegoen herrixkak, nola demontre izena zuen?

—Tori —eman zion dozena erdi arrautza Elenak.

—Hango herritxo hura, muinoaren gainean dagoena...

—Gillerna.

—Gillerna! Hori da! Eta hemengo hau Aperregi, ezta?

—Aperregi, bai. Ezagutzen duzu harana?

—Pixka bat bai.

Bere estudioko aterantz hurbildu zen Maitane, giltzak eskuan zituela.

—Mila esker, e —esan zion Elenari, arrautza-ontzia altxatuz.

—Oilategi txiki bat daukagu. Egunen batean ikusi nahi baduzu...

Estudiora sartu eta etxera deitu zuen, maleta desegin bitartean; lotarako prestatzen ariko ziren.

Negar batean jarri zitzaion txikiena.

—Noiz bueltatuko zara, ama?

—Hamar lo eta kitto, maitea. Segituan naiz hor.

—Zurekin nahi dut, ama...

—Aitarekin primeran egongo zara. Ikusiko duzu. Seguru tranpa pila bat egingo dituzuela...

—Zurekin nahi dut ipuina, ama.

—Laster itzuliko naiz, eta orduan pila bat kontatuko dizkizut, bale? Gauero hiru, zer iruditzen?

—Amaaaaa! —txilioka hasia zen alaba.

—Gero hitz egingo dugu, Maita —jarri zen senarra telefonoaz bestaldean; Maddiren

garrasiak entzun zitzakeen, “amaaaa, amaaaa!”—. Ondo gaude, lasai. Zuk aprobetxatu. Gozatu! Deituko dizut, ados? Agur, agur...

Lukianotik buelta bat ematea erabaki zuen. Dei hark utzitako aho-zapore garratza kendu beharra zeukan nola-hala. Txikia zen herria. Ehun bat baserri edo, ongi zainduak batzuk, erdi eraitsiak beste zenbait. Teilatuaren hegal bat luzeagoa zuten hainbatek, ukuiluentzat eta lastategiarentzat tarte bat egon zedin. Bazuten lastoa pilatuta gehienek, baina animalia gutxi ageri zen. Oiloren bat, eta katuak. Katu dezente kale desertuak zeharkatzen, han eta hemen. Etxalde gehienek egurra zeukaten pilatuta, eraikinaren hormen kanpoko aldearen kontra, teilatuaren metro erdiko estalpea aprobetxatuz. Elizako atea irekitzen saiatu zen, alferrik. Bolatokirantz zuzendu berri zituen urratsak, mugikorrek jo zionean.

—Hiru ipuin kontatu behar izan dizkiot —kontatu zion senarrak—, baina tira, konformatu da behintzat. Zergatik esan diozu hamar lo eta bueltan egongo zarela?

—Erreparoa eman dit. Hamalau eta infinitu esatea antzekoa da Maddirentzat...

—Ikusiko duzu egunero galdezka hasten bazait... Eta zenbat lo falta dira gaur, aita? Ea nola engainatzen dudan...

—Eta Manex?

—Ondo dago, oso jator. Asko ari zait laguntzen —esan zion senarrak. Hasperen batek ihes egin zion Maitaneri—. Ongi gaude, Maita. Ez kezkatu. Benetan. Primeran moldatuko gara! Lasai ibili zu! Eta gozatu! Zer plan duzu bihar?

—Murgiara joan beharko dut erosketak egitera, batere janaririk gabe etorri naiz. Eskerrak etxeoandreak dozena erdi arrautza eman dizkidan.

—Zer uste zenuen, Paki bat egongo zela Murgian, ala? —barre koskor bat egin zuen Mikelek.

—Konturatu ere ez igandea zela...

Dezente lasaitu zuen senarraren deiak. Kosta egin zitzaion, hala ere, loak hartzea. Ohean bueltaka ibili zen ordu batak arte, eta gero, minez esnatu zen goizeko seietan. Ustekabean harrapatu zuen hilekoak, eta odolez gorri zikindu zituen bai pijama eta baita maindireak ere. Jada ez zeukan erremediorik. Arropa eta maindire zikinak bainuontzian sartu eta kulero garbiak jantzi zituen. Ibuprofeno baten bila aritu zen poltsan. Pilula bat eta tanpoi bat eramaten zuen beti larrialdietarako, barneko poltsiko kremaieradunean. Ordu erdi pasa zen pastillaren eragina sentitu zuenerako. Leher eginda zegoen, lo gehiago egin beharra zeukan.

EGUERDIKO HAMABIAK jotzear ziren, esnatutakoan. Murgiara joan behar zuen! Dutxa azkar bat hartu eta Elenaren bila irten zen, kafe bat eztarriratzeko ere denborarik hartu gabe, eta komuneko paperarekin konpresa moduko bat inprobisatuta. Ate nagusiko txirrina jo zuen, esku artean zituela maindirea, pijamaren beheko partea eta kulero zikinak. Agusek ireki zion. Metro laurogei pasako gizon zabala zen. Indartsua, eta burusoila. Bizpahiru eguneko bizarra, egiteke. Zergatik pentsatu ote zuen ezkongabea ala alarguna zela Elena, bakarrik bizi zela halako baserri puska batean? Eskerrak odol orbanak estali zituen oihalak barrurantz bilduta. Gaztelaniaz zuzendu zitzaion, bitan pentsatu gabe:

—Maitane naiz, atzo iritsi nintzen, zera, horko estudioan nago...

—Badakit. Labadora jarri nahi duzu?

—Ez dago Elena?

—Murgiara joan da. Ekarri. Sartuko ditut nik.

—Nahiago dut nik neuk egin.

Zalantza egin zuen gizonak, baina pasatzen utzi eta sukaldera gidatu zuen.

—Hortxe —esan zion Agusek, labadora seinalatuz—. Eta hemen xaboia eta suabizantea. Joan beharra daukat. Irteterakoan ateari bultza eta listo, itxita geratzen da.

Garbigailua martxan jarri eta kanpoko soinuei adi geratu zen Maitane, sukaldetik mugitu gabe: kotxeko atearen danbatekoa entzun zuen, motorra pizten segidan, eta autoa handik aldentzen azkenik. Orduan hasi zen komun baten bila, ez zuen urruti behar, eta lortu beharra zeukan konpresa bakanen bat. Hirugarren eskailera igo orduko geldi geratu zen: izugarritzkoa zen egurraren kontra bere oinek egiten zuten karraska. Eta beste norbait bizi baldin bazen han? Hartutako bidea desegin zuen, baserri kanpora atera arte. Bere estudioko komunetik pasatu “konpresa” aldatzera eta kotxean sartu zen, poltsa pare bat hartuta. Erosketak egin behar zituen, lehenbailehen.

Murgia erdialdean aparkatu zuen batere eragozpenik gabe, eta ultramarino hura zegoen tokira zuzendu zituen urratsak... Autoservicio Itziar, horixe zen!, zenbat urte ote zituen? Eta hantxe eskola, haren atzealdean. Baita Guardia Zibilen kuartela ere. Ez zen aski mudatua, herriaren parte hura. 12:40. Laster aterako ziren ikasle-irakasleak bazkaritarako, ez baziren irten dagoeneko... Dozena bat arrautza eskuratu zituen, fruta, barazkiak, 150 gramo urdaiazpiko, gazta zati bat, botila bat ardo beltz, lau garagardo lata. Eta konpresak. Eta tanpoiak.

Zuia Plaza kafetegian ebaki bat eskatu ahala egin zuen komuneko buelta. Terrazan jarri zen kafearekin, erlaxatuta azkenean, enparantzari begira: oinezkoentzat dotore atondua zegoen, ume-parke estreinatu berri harekin kafetegiaren aldamenen... Ez zen toki txarra haurrak jolasean utzi, eta kafe bat edo garagardo bat lasai hartzeko. Halakoen bila ibiltzen ziren senarra eta biak guraso izan zirenetik, bisitatzen zuten herri bakoitzean. Radarraren egokitzapena ez zen nolana hikoia izan: jatetxe xarmanten xerka jarduten ziren nobiotan... Atentzioa eman zion plazaren erdian zeuden

egurrezko bankuak ortzadarraren koloreekin margotuta ikusteak, eta kolore bereko bandera udaletxean eskegita... Horiek bai ez zeudela duela 20 urte.

Farmazian Ibuprofenoak eskuratu, erosketak kotxean utzi, eta herriari bueltatxo bat ematera abiatu zen. Bizpahiru solairuko elkarri atxikitako etxe mordoia eraikiak zituzten, bakoitza bere lorategitxoarekin. Halakoz josita zegoen plazatik kiroldegirako tarte guztia. Estalita zegoen aire zabaleko igerilekua, negutegi tankera ematen zion beirategi harekin. Goiko bidetik bueltan etorrira, anbulatorio dotorea ikusi ahal izan zuen: estreinatu berria zirudien hark ere.

Kotxera itzuli zen, Lukianon bazkaldu nahi zuen. Eskola pareko zebrabidean geratu behar izan zuen autoa, atera berri ziren hurrei pasatzen uzteko. Bihotza azeleratu zitzaion, ustekabea. Irakasle gutxi antzeman zuen han, ordea. Amak (eta aita bakanen bat) euren ume motxiladunei eskutik helduta. Haien denak igarotakoan, martxan jarri berriz kotxea, eta lehen bidegurutzetan ezkerretara eginez, Casa Lafuenterako bidea hartu zuen.

Norbaitek bere arropak baserri aurrean zegoen esekitokian zintzilikatuak zituen. Lehortuta ote zeuden egiaztatzen ari zela azaldu zen Elena, etxe barrutik.

—Sikatu al dira? —galdetu zion etxeakoandreak.

—Lehortu dira, bai. Eskerrik asko. Hilekoa etorri zait ustekabea eta...

—Hala gertatzen da. Ba al duzu planik arratsalderako? La Encontrada-ra joatea daukazu.

—La Encontrada?

—Ez al duzu ezagutzen? Oso leku ederra da, eta bertatik bertara daukazu. Berez, finka partikularra da, baina tira... Antonino agertzen bazaizu, esan gure laguna zarela, Casa Lafuenteratik zatozela. Amorrarazita dabil gizona azkenaldian, jende mordoia sartzen zaiolako. Lehen “prohibido el paso” zioen kartel bat zeukan. Orain beste hiru jarri ditu. Ez egin kasurik. Segi aurrera beldurrik gabe.

—Ez dit eskopeta aterako, ezta? —galdetu zion Maitanek erdi txantxetan.

—Ez dut uste —erantzun zuen Elenak, ironia izpirik gabe.

Ez zuela uste?!

—Nahiago baduzu elkarrekin joan gaitzke —esan zion Elenak, Maitaneren keinua ikusita—. Baina gaur ezin dut. Deitu egingo diot, zer iruditzen? Gustura erakutsiko digu etxaldea.

Hurrengo ostegunerako jarri zuten hitzordua azkenean, Antoninorekin berarekin telefonoz hitz egin ostean.

—Eta biharko planik bai? Jugatxi ezagutzen duzu? Oso ibilbide leuna da, eta eguraldi bikaina eman dute.

Jugatxi?! Ezagutuko ez zuen, ba.

Gau hartan etxera deitutakoan, poztu zen bezperako adinako dramarik egin ez ziolako txikienak. Aukera izan zuen semearekin hitz egiteko ere. Kontrolatuta zirudien kontuak.

KASU EGIN Elenari eta Jugatxirantz abiatu zen biharamunean, kotxea Murgian aparkatu eta gero. Mendia inguratu zuen, pagoz, haritzez eta makalez jantzitako beheko bide ederretik, ia Jugora iritsi arte. Herrira sartu gabe abiatzen zen Jugatxirako aldapa, baina bisitatzea erabaki zuen. Zortzi baserri baino ez ziren, ez bazen asko aldatu, agudo egingo zuen joan-etorria. Zaunka betean egin zion harrera herriko sarreran zegoen txaleteko rottweilerrak, brinko galanta. Hesiaren bestaldean egoteak ez zion ezustekoa eragotzi, bortitza zen piztia haren itxura, eta ernai jarri zituen gainera inguruetakoa lau hankako guztiak: zaunkak garun-begietan oihartzun ibili zuen elizarainoko bidea, ezker-eskuin hainbat baserrik osatzen zuten korridore itxurako hartatik barna.

Motxilatik plastikozko botila ura atera, eta zaunkak behingoagatik baretu zirela profitatuz, bi tragoxka edan zituen elizaren aurreko petrilean eserita, eraikina ederresten zuen bitartean. Elizaren ataria zegoen hormatik perpendikular ateratzen zen pareta biluziak txunditu zuen, ez zeukan heldulekurik ez atzealdean ez aurrealdean, ezer mugatzeko funtziorik ere ez itxura batean. Kanpandorre soil ote? Halako horma puska eraiki, goiko muturrean zegoen kanpaiari eusteko soilik? Ala elizak behiala beste egitura bat izan zuelako? 24 urterekin beste kontu batzuetan jartzen zuen arreta, bistan zenez, ez baitzitzaion ezagun egiten horma hura. Kanpaiaren gaineko zapalgunean, habia ederra egina zuten zikoinek. Bertan zen bat, zutik jarrita, bailarari errepasoa emanaz.

Buelta egin zuen etorritako bidetik. Agudo hurbildu zitzaizkion berriz zakurrak, oldarrean. Hilekoa usaintzen ote zuten, ala zer arraio?!

Hirurogei urte pasako gizona ikusi zuen baratzean lanean. Ehunka izango zituen atzean zeukan baserriak. Gerritik gora biluzik, bizkarreko azala ondo laztua, belar txarrak erretiratzen ari zen. Fuerte berotzen zuen eguzkiak.

Eta hari galdetzen bazion? Zertarako, baina?

Herria atzean utzi eta maldan gora hasi zen. Pikoa zen, baina motza. Kilometro eskas. Hamabost minutuan Jugatxiko ermitaren aurrean zegoen, zuhaitz zahar eta sendoz jantzitako zelai eder haren erdian zeuden egurrezko mahai haietako batean jarrita. Motxilatik almendra batzuk atera eta ur pixka bat edan zuen izerditutakoa berreskuratzeko.

Berebiziko bake sentimendua ematen zion leku hark, baina ez hori bakarrik: trumilka zetozkion oroitzapenak. Esku bat bere izterretik gora igotzen, muxua lepoan, zupada belarri-gingilean. Irribarre ospel bat itzuri zitzaion.

Sugandila bat ikusi zuen aldameneko enborrean gora eta behera, kartel moduko bat zuhaitz batean kokatuta. Mezu bat zeukan, bi hizkuntzetan, eres aquí y ahora; hemen eta orain zara, eta QR kode bat aldamenean: Artiumeko webgunera bideratzen zuen. Mario Paniego delako artista batek 2019an egindako instalazio baten parte zen, antza. Gehiago omen zeuden, bailaran zehar sakabanatuta.

Belarretan etzan zen. Laino bakanak astiro mugitzen zeruan. Ihintzaren itzal leuna

besurreetan, belarraren kilimak lepatzean. Begiak itxi zituen. Txoriak kantari, hostoen xuxurla haizearen mende mugitzen. Ulertzen zuen hura izatea bailarako biztanleen toki kuttunetakoa. Dardar egin zion mugikorrek poltsikoan. Argazki bat zen: irribarretsu Manex eta Maddi, makarroi platerka banaren aurrean, tomatez zikinduak ezpain inguruak, kokotsa. “A zer kuxidadea!”, idazten zion senarrak, barrez lehertzen ari zen emotikonoaz lagunduta. Letaginen hutsune nabarmena nabaritzen zitzaion handienari. Zer guapo zeuden.

Begiak itxi zituen osterara, sakon hartu zuen arnasa.

Hemen eta orain zara, hemen eta orain zara.

HOZTUTA ESNATU ZEN Jugatxiko zelaian. Laino potolo samarrak tartekatuak ziren eguzkiaren eta beraren artean... Zenbat denbora igaro ote zen loak hartu zuenetik? Mugikorra atera zuen: hamar minutu soilik!

Northface-a jantzi eta beherantz abiatu zen. Agudo jaitsi zuen haritzen eta pagoen arteko bide malkartsua. Zuia Plaza kafetegiaren terrazan eseri zen ostera, garagardo batekin eta patata tortilla pintxo batekin, komunean tanpoia aldatu ostean. Majo berotzen zuen berriz eguzkiak.

Indarberriturik sentitu zen segituan, baina ez zeukan gehiago ibiltzeko gogorik. Kotxea hartu eta noraezean ibili zen Murgian zehar, ezkerrera edo eskuinera joatea zoriaren esku utziz. Sarriarako bidean ikusi zuen bere burua ustekabean. Herrigunea alderik alde gurutzatu, eta Markinara iritsi zen. Aldaparen gainaldean bukatzen zen errepidea, eliza parean. Bailararen perspektiba desberdin bat ikus zitekeen han goitik. Mugikorreko mapa begiratu zuen: Berretin puntara eta, aurrera jarraituz gero, Gorbeia gurutzera ere irits zitekeen, elizaren atzeko bidetik abiatuta. Herria oinez zeharkatzea erabaki zuen.

Dotoreagoak ziren han baserriak, Lukianon baino; lorategi ongi zainduekin ia guztiak. Eta herriaren erdian eraikintzar hura. Inguruko baserrien arkitekturatik erabat aldendua, zeukan altuera urriarengatik izan ezik. Parasites filmeko txalet puska hura gogorarazi zion Maitaneri. Pareta gris soileko eraikin modernoa, beirate zabalekoa atze eta aurre, ez teila gorririk, ez harrizko hormarik, ez egurrezko haberik. Simaurraren ordez, zaintza-kamerak. Ukuiluaren partez, garajea. Eta lurzoru zabala ondo babestua, ia bi metroko murruekin. Larru zuriko besaulkiez hornitutako porlanezko terraza bat zeukan, beirate nagusiaren aurrean; porlana bukatzen zen tokian, belardi ondo zaindua, eta bertan kokatua, ez bi eta ez lau, zortzi metroko altuera zuen antena erraldoia. Melbourneko telebista-kateak ikusi nahi ote zituen edo? Poltsikoetan dirua kabitzen ez zitzaion norbaitek eraikia zen tenplu hura, zalantzarik gabe.

Beherantz abiatu zen. Errekara iritsi baino lehen egin zuen topo baratzea lantzen ari zen adineko emakumearekin. Aitzurrarekin ziharduen, ondo makurtuta, laurogei urte pasa izango zituen arren. Artilezko jertse potoloa zeraman bero egonagatik, eta zapia buruan.

—Kaixo —esan zion Maitanek.

—Kaiso.

—Beti lan handia baratzean, ezta?

—En erderaz, por favor.

—Que mucho trabajo en la huerta.

—Siempre hay algo. Que si hay que abonar, que si hay que quitar las malas hierbas, que ahora que hay que regar...

—No se acaba nunca, ¿eh?

—¡Y mejor que no se acabe! Mala señal sería.

—Estoy buscando a una persona. Iñaki Pikabea.

Zer saltsatan sartzen ari zen.

—¿Pero vive aquí en Markina?

—En el valle. Soy periodista —bota zuen gezurra, bitan pentsatu gabe—. Estoy haciendo un reportaje sobre el tema del agua.

—Ay, sí. No sé si es el cambio climático o qué, pero cada año llueve menos.

—No le suena, ¿entonces?

—Iñaki, ¿qué más?

—Pikabea.

—En Markina no vive. ¿No será en Markina de Bizkaia? Mucha gente los confunde.

—No, no. Aquí, en el valle.

—Pues en Markina no es. Somos cuatro gatos.

—Ya —bideari lotu zitzaion, ostera—. Bueno, gracias, eh.

—Nada, nada —erantzun zion emakumeak, aitzurrarekin agur eginez.

Beherantz jo zuen Maitanek, errekaraino. Zubia pasa eta errota zaharberituari bistadizoa eman zion kanpotik. Erreka ertzetik segitu zuen bidea, eskuinera egiteko herriaren bukaeran. Hiru behor larrean bazkatzen. Argazki bat egin zien, umeei bidaltzeko, eta elizaranzkoa hartu zuen maldan gora. Goseak zegoen, nola ez ba?, pintxo batekin egin zuen-eta bazkari pasa! Kotxea hartu eta Lukianora bueltatu zen, lehenbailehen aldatu beharra zeukan tanpoia.

Porruen gainaldeko geruza kendu eta ongi garbitu zituen, zatitan moztu aurretik. Patatak, gatza, olio. 19:00ak ziren. Ez zen ordu txarra etxera deitzeko.

—Kaixo, ama! —alai igartzen zitzaion Maddiri.

—Kaixo, bihotza! Zer moduz?

—Ondo, ama! Gaur Juneren urtebetetzea izan da, eta bizkotxo. Jan dugu!

—Txokolatearekin?

—Ez! Bizkotxo bakarrik, niri gustatzen zaidan bezala!

—Ze ondo! Ba badakizu zer? Nik kanpandorre bat ikusi dut, eta kanpaitik zintzilik soka luze bat iristen zen lurreraino. Kanpaia jotzeko!

—Eta jo al duzu?

—Ez! Baina badakizu zer den onena?

—Zer?

—Kanpaiaren gainaldean zikoinen habia bat zegoen, eta zikoina handi bat bertan zutik jarrita.

—Ba ze leku txarra habia egiteko, ezta? Susto ederra hartuko dute kanpaia jotzen duten bakoitzean!

Umeen logika eztabaiaezina.

—Erakutsi al dizu aita behorren argazkia?

—Zerena?

—Zaldiena?

—A bai! Ze polita, ama! Noiz etorriko zara?

—Orain Manexen txanda, benga —entzun zuen senarra.

Semea jarri zen. Afaria prestatzen ari zela kontatu zion Maitanek:

—Eta zer ari zara egiten? —galdetu zion semeak.

—Porru-patatak.

—Porru-patatak? Jan haragi pixka bat, ama! Oporretan zaude-eta.

Irribarre bat itzuri zitzaion Maitaneri.

Ongi omen zihoan dena, senarraren hitzetan. “Zuk disfrutatu tope”.

la erre beharreen irentsi zituen porruak. Gosea denean, txantxa gutxi. Ohean etzan zen, telebista piztuta, mugikorrari begira jartzeko. Hiru ordotara esnatu zen, hotzak akabatzen eta sabeleko minez. Ahaztua zitzaion afalosteko Ibuprofenoa. Baso bat esne berotu zuen, erraietaraino sartua zitzaion hotza uxatu asmoz.

Oilarrak esnatu zuen goizeko seiak eta erdietan, egunaren lehen printzekin batera. Oihalezko pertsiana igo eta Badaiaiko mendilerroa agertu zitzaion, eguzkiak harrotuta, begien aurrean. Lanbro fin batek estaltzen zuen, ordea, haran osoa: ederra zegoen, gailurrak soilik agerian. Komuniketik pasatu, konpresa aldatu eta ohera itzuli zen. Minik ez, behintzat. Plazer hartu zuen maindire artean lasai eta presarik gabe egote hutsarekin aspaldi ez bezala, ustekabeko zotinen batek une hura lapurtuko zion beldurrik gabe. Eguzki-izpiek gozo jotzen zioten aurpegian, begiak ixtera behartuz, eta loak hartu zuen oster segituan.

ZORTZIETAKO KANPAIEK esnatu zuten. Baserri atarira irten zen, nagiak ateratzen zituen bitartean. Giro aparta zegoen, desagertua ordurako lanbro fin hura. Agus ikusi zuen baratzean lanean, eta diosal egin zion.

—Nola deitzen da mendi hori? —galdetu zion, kortesiazko hitz apurrak eta gero. Hara igotzeko grina sartu zitzaion bat-batean.

—Horko hori? Ganalto.

—Eta zenbat denbora beharko nuke tontorrera heltzeko?

—Ordubete goian zara.

Lanak utzi eta hiruzpalau pauso hurbildu zitzaion gizona.

—Begira, horra eramango zaitut nahi baduzu —hatzarekin seinalatu zion Aperregi ondoko bidegurutze bat—, mendiaren ezkerreko magal horretatik igo, profil osoa ibili, argazki bat atera gurutzearekin, eta beste alde honetatik jaistea daukazu. Honaxe iritsiko zara. Bi orduko buelta ederra eta erraza.

—Ez da plan txarra. Ordu erdian abiatzeko moduan?

—Zuk nahi duzunean. Ni ez naiz hemendik mugituko.

Zerbait gosaldu eta motxilan sartu zituen almendra batzuk eta ura. Atarira irten zen atzera, apurtxo bat apaindu ostean. Ardi artean ibiltzeko ez zuen askorik beharko, baina... Maitane prest ikusi ahala utzi zuen Agusek egiten ari zena. Ataritik garrasi bat egin zion Elenari, “voy a llevarla al camino de Ganalto”. Erantzunaren zain geratu zen. “¡Elena!”. Kasurik ez.

Barrura sartu zen, minutu pare baten buruan bueltatzeko.

—Goazen —esan zion Maitaneri, begitarte zimurtuarekin.

—Dena ongi?

—Ama desagertu da... —esan zion Agusek—. Katakumeen ama. Atzo eguerdian atera zen, eta ez da oraindik itzuli. Seinale txarra.

Kotxea baino tankea zen berak gidatzen zuen tramankulu hura. Mendian eta elurretan ibiltzeko egokia, zalantzarik gabe. Aperregirantz hartu zuen.

—Eta zure oporrak? —galdetu zion Agusek, hitz beste eginez.

—Oso ondo, egia esan. Hain lasaia da hau, justu bila nenbilena.

—Ezagutzen zenuela uste nuen.

—Irakasle jardun nintzen, baina badira 20 urte...

—Murgian?

—Murgiako eskolan.

—Eta? Oso aldatuta topatu al duzu bailara?

—Pixka bat bai, e...

Irribarre egin zuen Agusek.

—Asko aldatu da dena.

Maindire-kontuak aitatzekotan egon zen, bere jarrera dorpea sentitzen zuela esatekotan, baina ez zen ausartu.

Aperregi atzean utzi eta Domaikiarantz hartu zuen Agusek. Eskuinera egin erdibidean, eta aurrera gero hartxintzarrez jositako errepide batetik, harik eta hesi batek igarotzea eragotzi zion arte.

—Hortik gora dena. Eta lepora iritsitakoan, eskuinera —gaztigatu zion—. Ez du galbiderik.

—Mila esker!

Hesia irekitzen saiatzen ari zen, Agusek kotxeari buelta ematen zion bitartean. Zer arraio...

—Beste aldetik irekitzen da —esan zion, kotxetik jaitsi gabe.

—A, eskerrik asko... —nola demontre ez ote zen konturatu. Kalekumea ematen zuen!

Uste baino errazago egin zuen gailurra. Ez al zen gurutzea Gorbeiaikoaren tankerakoa? Zoragarria zen hango bista: Oroko santutegia, Domaikia, Aperregi, Lukiano... Almendra batzuk jan eta trago bat ur edan zuen, mugikorra atera argazki bat egiteko: panoramika luze horietako bat merezi zuen paraje hark. Hara!, WhatsApp bat zeukan telefono ezezagun batekoa: “Zuiara etorri eta kasurik ez?! Ipurdiko ederra emango dizut!”. Danbadaka jarri zitzaion bihotza. Batere pistarik ematen ez zuen mitxoleta bat zeukan paratua, profileko argazkian. “Baina nor zara?”. Erantzunik ez. Beheranzkoa hartu zuen. Casa Lafuentera iristen ari zela igarri zuen dardara izter parean. “Nor naizen?! Rober!!! Nor uste zenuen ba nintzela? ;) Zer arraio egiten duzu hemen?!”. Irribarre egin zuen Maitanek. Nola kristo jakin ote zuen handik zebilela?

“Rober! Murgian bizi al zara?”, galdetu zion.

“Gillernan! Noiz etorriko zara bisitan?”.

“Ni libre nago. Zuk esan!”.

“Etorri afaltzera. Gorka aurkeztuko dizut”.

“Gorka... Mmm... Izen horrekin jatorra behar du”.

“Etorriko al zara?”.

“Gaur?”.

“Noiz ba?”.

Senarrari idatzi zion, Casa Lafuentera iritsi ahala:

“Gaur gauean ez badut deitzen, ez da ezer gertatzen, ezta?”.

“Dena kontrolpean, Maita. Deskonektatu!”.

GAUTZEN HASIA ZUEN Gillernara iritsi zenerako. Musukoa jantzi eta kotxetik atera zen. Eliz atarian zegoen Roberto, hitz eginda bezala. Ilea guztiz urdindua, bi egunetako bizar zaindua (bailara hartan ez zuen inork musukorik eramaten, antza), ongi zahartua zen gizona. Ezagutu zuenean zeukan imana izaten segitzen zuen.

—Alua! Berdin-berdin zaude-eta! —esan zion Robertok, besarkada handi batean bildu aurretik.

—Bai zera!

—Kendu hori! —agindu zion—, hemen denak immunizatuta gaude.

Eta eskuetatik heldu zion Maitaneri, goitik beherako errepassoa eman bitartean.

—Egunero egiten al duzu txortan, ala? Hezurretan zaude!

—Kontatuko banizu... Eta Gorka?

—Afaría prestatzen utzi dut. Egin dezala lan pixka bat, ezta?

—Zuk daukazu zortea, zuk! Sukaldari ona izango da, gainera.

—Jatea gehiago gustatzen zaio —esan zion begi-keinu bat eginez.

Algara bat itzuri zitzaion Maitaneri. Sorbaldatik heldu zion Robertok.

—Zenbat urte? Hamar?

—Edo gehiago! Donostian topo egin genuen hartatik...

—Aquarium parean! Egia!

—Hamabi izango dira...

—Eneeee...

Musu eman zion masailean.

—Kontatuko didazu zer arraio egiten duzun hemen, ezta? Abisatu gabe, gainera?! Ipurdiko galanta merezi duzu...

Maitanek ahoa ireki orduko eten zion lagunak:

—Orain ez, orain ez! Saltsa pixka bat eman beharko diogu Gorkari ere. Ez zaizu inporta, ezta? —urrunera begira jarri zen—. Hau bista, e! Bailara osoa ikusiko genuke, zuhaitz horiengatik ez balitz. Begira, gora igoko gara. Zer iruditzen? Ez duzu presarik, ezta? Gosea egingo dugu, horrela.

Sorbaldatik heldu eta maldan gora abiatu ziren, baserri bikainen artetik zihoan errepidetik barna. Lukianoren tankerako herria zen Gillerna tamainaz, baina han are zainduagoak ikusten ziren baserri gehienak.

—Gu bezalako agrohippy dezente dago hemen, konturatuko zinen —aitortu zion Robertok—. Begira! Horixe da gure etxea.

Baserri zaharberritu dotore askoa zen, lorategi handia zeukana, eta ertz batean, baita baratze txiki bat ere. Garaje bihurtua zuten ukuilu izandakoa.

—Gero erakutsiko dizut —agindu zion Robertok, eta gorantz segitu zuten.

Maldan behera traktorean zetorren gizon ihar batekin egin zuten topo. Euren parean geratu

zuen tramankulua.

—Tenéis invitada, ¿o qué?

—Eso parece.

—Bueno, bueno.

—Vamos arriba a contemplar el valle.

—¡Muy bien!

Robertok ez zuen bera aurkezteko lanik hartu. Traktorea maldan behera abiatutakoan kontatu zion xuxurla batean:

—Peko zinegotzia izan zen garai batean Isidoro. Ia ehun buruko artaldearekin ibiltzen zen Badaiaiko mendi magaletan, gora eta behera, eta berarengandik 20 bat metrora, bizkartzaina, pistola eta guzti. Garai latzak haiek, baita artzain izateko ere...

Goraino iritsi ziren. Eguzkia sartzear, zoragarria zen hango bista. Ametzaga, Murgia, Bitoriano, Lukiano...

—Ba al dakizu urtegi erraldoi bat egiteko proiektu bat egon zela 1950eko hamarkadan?

—Hemen?

—Lukianotik Bitorianora, urpean geratzen zen dena, Gillerna izan ezik.

Muino batean kokatua baitzegoen herria, inguruko herriak baino altuago.

—Eta zergatik ez zuten gauzatu?

—Filtrazioak, antza. Ihes egiten omen zuen urak. Eskerrak, ezta?

—Laku erraldoi bat zenuketen hemen aurrean, bestela.

—Eta sekulako hezetasuna!

—Orain urarekin dituzuen arazoak ez zenituzten izango.

—Informatuta zaude, e?

—Zer uste zenuen, ba?

—Nork kontatu dizu? Askok aldatzen da pelikula, segun eta nork kontatzen dizun.

—Batak eta besteak... Kazetari plantak egiten ibili naiz.

—Ez da egia izango.

—Oso dibertigarria da!

—Idazlea zarela esan behar zenuke. Kazetari bati inork ez dizkio egiak kontatzen.

—Eta idazle bati bai?

—Errazago. Nobeletan irtetea gustatu egiten zaio jendeari.

—Tira, jolas bat baino ez zen.

—Bertako kontuak ezagutzeko ez da sistema txarra. Mundu guztiak dauka idazle bati kontatzeko moduko zerbait... Istorio ederrak daude bailaran. Eta latzak ere bai... Pixka bat hazka egiten baduzu... Gorkari galdetuko diogu, seguru berak badakizkiela batzuk, kristo guztia ezagutzen du. Goazen, laster ez dugu pitorik ikusiko-eta.

Algaraka abiatu ziren maldan behera. Zaunkaka hasten zitzaizkien etxaldeetako zakurrak, aldamenetik igaro orduko. Aurki ziren euren baserri parean. Lorategia inguratzen zuen zuhaixkez

osatutako itxiturak zeukan hutsunetik igaro ziren. Burdina forjatuzko arku bat zeukan pasabideak, non letra larriz irakur baitzitekeen euren baserriari paratu zioten izena: PARADISO. Ez paraíso, ezta paradisu ere. Paradiso.

Baserriko tramankulu ongi zainduak (laia, sega, goldea, aizkora, sardea...) eta koadro abstraktu ederrak tartekatuta zeuden barnealdeko harrizko hormetan. Egongelara iritsi ziren: ikaragarria zen, nahiz eta zalantzazko estiloz uztartzen ziren chester sofa granate bat, tximiniaren gainean apaingarri gisa zegoen hauspo erraldoia, apokalipsi baten itxura zeukan koadro abstraktu koloretsu hura eta bikotearen metro karratu bateko argazki zuri-beltzekoa.

Sukaldean zegoen Gorka, amantal beltza jantzita, afaria prestatzen. Guztiz burusoildua, bizar sarri baina zaindua zeukan, beso sendoak eta begi oso iluneko begirada sarkorra. Jazz musika leuna entzuten zen. Kopa bat ardo zeukan entzimeran, Izadi botila bat zabalik aldamenean, eta hiru entsalada plater erdi prest: espinaka hostoak, cherry tomate erdibituak, paxak eta ekilore pipak. Aurkezpenak egin zituen Robertok. Irribarre egin zioten elkarri.

—Zu al zara Maitane famatua? Enchanté —esan zuen Gorkak. Zartagina zeukan esku batean eta bitsadera bestean. Ahuntz-gazta zatiak frijitzen ari zen—. Tira, eseri, eseri! Prest dago dena! Eraman ardoa, mesedez! Oraintxe noa.

Estilo handiarekin apaindua zegoen mahai borobila. Lihozko mahai-zapi beixa, ahozapi marroiak, bina plater pertsonako bata bestearen gainean paratuta, urarentzat basoa, ardoarentzat kopa eta hiru adarreko argimutil urrekara bat erdigunean. Piztu egin zituen kandelak Robertok, eta sabaiko lanpara itzali. Foku txikiz argituta zeuden koadroak eta hormetako beste apaingarriak, eta ilunantz gustagarri batean geratuak ziren.

—Elegante, e! —esan zuen Maitanek.

—Oraindik ez al zarete jesarri? —sartu zen salan Gorka entsaladekin—. Ardoa ere ez duzue eta ekarri... A zer fundamentua!

Sukaldera bueltatu zen, Izadi botilarekin itzultzeko ziztuan. Eskuak zerurantz begira jarri zituen Robertok, “zer egingo diogu ba” esan nahian bezala, irribarre txikia ezpainetan. Mahaiaren bueltan eseri ziren.

—Nork bedeinkatuko du? —galdetu zuen Gorkak.

—Itxura itzela dauka —esan zuen Robertok.

—Mundiala —berretsi zuen Maitanek—. Mila esker gonbidapenarengatik!

Gorkaren aldera lerratu zen Roberto, muxutxo bat emateko:

—Eskerrik asko, maitea. Portatu zara.

—Amaren, alabaren eta amamaren izpirituaren izenean... —esan zuen Gorkak.

—Amen! —borobildu zuen Robertok bedeinkazioa irribarrez.

—Ongi etorri paradisora, laztana!

—ESKOLAKO gatza eta piperra nintzen eta... —esan zuen Robertok—. Ez dakit zergatik arraio utzi nuen... Ez zegoen ni baino irakasle hoberik!

—Gure Mister Umil! —bota zion Gorkak.

Barrez lehertu zen Maitane.

—Asko maite zuten ikasleek. Egia da hori —esan zuen bere onera etorritakoan.

—Ikusten? —Robertok Gorkari.

—Zergatik utzi zenuen? —galdetu zuen Maitanek.

—Atera egin nahi nuen herritik... Marikoi deklaratu bakarra nintzen haran osoan!

—Ez zenuen ligatzen... Esan egia! —esan zuen Gorkak.

—Ez zegoen ligatzerik! —erantzun zion Robertok hortzak erakutsiz—. Madrilera joan nintzen, sexologiako masterra egitera, eta eskerrak!

—Han ezagutu zenuen Gorka.

—Hantxe ezagutu nuen nire aingeru guardakoa: marikoa... eta euskalduna! Hiri erraldoi hartarako behar nuen ciceronea. Orozkoko morroskoa. Baietz, maitea?

—Sexologiako masterra egiten ari al zinen zu ere? —galdetu zion Maitanek.

—Pelikuletako kontua zen Orozkon homosexualitatea —azaldu zuen Gorkak—. Ez zen ikusten. Eta ikusten ez dena ez da existitzen. Bi pezetarekin joan nintzen ni Madrilera, edozer lan onartzeko prest. Kamarero gisa egin nuen lan hiru urtean...

—Chuecan —zehaztu zuen Robertok.

—Chuecan, bai —esan zuen Gorkak—. Eta diru pixka bat bildu nuenean, sexologiako masterrera apuntatu nintzen. Nire bigarren urtean hasi zen maripetral hau eta, tira...

—Maitemindu egin ginen! —esan zuen Robertok burulaizearekin.

—Eta hura bukatu genuenean erabaki genuen: eskoletan sexologiari eta sexu-aniztasunari buruz hitzaldiak emango genituen!

—Nirea izan zen ideia! —esan zuen Robertok.

—Barkatu?! —Gorkak.

—Eta Euskal Herrira itzuli zineten —esan zuen Maitanek.

—Guk bizi izan genuena iraultzea zen asmoa —zirikatu zuen Gorkak—. Ikusgarritasuna ematea kontuari. Sexu eta genero aniztasuna defendatzea...

—Ze polita, maitea —esan zuen Robertok trufaz, Gorkari eskutik helduta.

—Utikan! —kendu zuen Gorkak eskua, bikotekidearenaren azpitik, irribarrea galdu gabe.

—Eta zergatik Zuiara? Zergatik ez Orozko? —galdetu zuen Maitanek.

—Nik ez nuen Orozkora itzuli nahi, eta bera Zuiara itzultzeko irrikatan zegoen...

—Eta baserri hau erosteko aukera sortu zen, nahiko prezio onean —esan zuen Robertok—

. 2001. urtean ez ziren hain garestiak...

—Txiki-txiki eginda zegoen...

—Dena berritu behar izan genuen... Goitik behera!

—Eta orain —esan zuen Maitanek—, begira zer nolako palazioa duzuen!

—Urteak kostatu zitzaigun...

—Eta oraindik ordaintzen ari gara...

—Baina egin egin duzue! Topa! —esan zuen Maitanek eta kopa ardoa altxatu zuen.

—Eta zure istorioa, zer? —galdetu zion Gorkak Maitaneri, ardo tragoa edan eta gero—. Zein da zuen istorioa? Eskolan ezagutu zenuten elkar, beraz?

—Gogoratzen naiz iritsi zenean... —esan zuen Robertok—. Begirada lurrean kakotuta, eta ia begiak estaltzen zizkion kopeta-ile harekin...

—Oso lotsatia nintzen...

—Eta klaseak ematera etorri zinen, e? —galdetu zuen Gorkak.

—Eta klaseak ematera etorri nintzen! Bai horixe! Ez dakit zergatik aukeratu nituen irakasle-ikasketak. Kaka galtzetan nengoen... —esan zuen Maitanek.

—Baina eskolako printzea ezagutu zuen... —esan zuen Robertok.

—Nobioren bat? —Gorkak.

—Ni neu! —Robertok—. Nik bizkortu nuen neskabila lotsati hura!

—Okerrena da egia dela —esan zuen Maitanek irribarrez.

—Eta zergatik ez zinen gelditu bertan? —galdetu zuen Gorkak.

—Beasainera bidali ninduten. Urtebeteko ordezkapen bat zen nirea... Ikasturtea bukatu zenean, akabo.

—Eta orduan orain hona etorri zara... —esan zuen Gorkak.

—Bere lagun min Roberto ikustera! —esan zuen Robertok.

—Ez, ezta? —esan zuen Gorkak.

—Utzi egin nuen irakaskuntza... Ez nuen bokaziorik. Eta itzulpengintza ikasten hasi nintzen. Kamarera lanarekin uztartzen nuen.

—Hara! Beste bat!

—Bai... Gero, nire kontura jarri nintzen, bezero txikiak lortu nituen... Hala ibili naiz urte askoan. Ez zait gaizki joan! Tartean ezkondu egin nintzen, bi seme-alaba izan... Eta duela hilabete oposizioak gainditu nituen diputazioko itzultzaile plazarako, eta nola hamabost egun barru hasten naizen, bi asteke oporrak hartu ditut.

—Oso ondo iruditzen zait! Geure buruari arnasa ematea ahaztu egiten zaigu, askotan —esan zuen Gorkak, eta ardo pixka bat eztarriratu zuen—. Eta... —eztulka hasi zen bat-batean—. Barkatu. Kontrako eztarritik joan zait. Galdera bat egin dezaket. Zergatik Zuia? —segitu zuen Gorkak.

—Ni ikusteagatik, esan dizut ba! —Robertok, irribarrez.

—20 urte ondoren bailara nola aldatu zen ikusi nahi nuen —azaldu zion Maitanek Gorkari. Barre-algara bat irten zitzaion Robertori.

—Ui, ui, ui... —esan zuen Gorkak—. Hau oso interesgarri jartzen ari da, e...

—Bailara bisitatu nahi nuen, egia da!, banekien toki lasaia dela, eta bakea nahi nuen, oso urrutira joan beharrik gabe!

—Orduan Pikabea non bizi den jakitea ez zaizu interesatuko, ezta? —bota zuen Robertok.

—Cuate. Aquí hay tomate —irribarrez Gorkak.

—Ba egia esan ez —esan zuen Maitanek.

—Nor da Pikabea? —galdetu zuen Gorkak—. Azalduko didazue, ezta?

—Ezta bere telefonoa ere? —segitu zuen berearekin Robertok, Gorkari entzungor eginda.

—Ez —erantzun zuen Maitanek.

—Ez al dit inork esango nor arraio den Pikabea delako hori?

—Gure lankide bat —azaldu zion Maitanek.

—Lankide bat?!! —egin zituen harritu plantak Robertok. Barrez lehertzeaz zegoela ematen zuen—. Begira, gauza bat egingo dugu. Nik papertxo bat hartuko dut, eta bertan apuntatuko ditut bere helbidea eta telefonoa, eta gero hementxe utziko dut, mahai gainean. Seguru nago dena jasotzen dugunean, hortxe segituko duela, nik utzitako tokian. Orduan, hartu eta zakarrontzira botako dut. Zer iruditzen?

—Primeran —esan zuen Maitanek.

—Zer izan zen, maitemin oso pasional horietako bat? —galdetu zuen Gorkak.

—Qué va... —esan zuen Robertok burlaizearekin, idazten hastearekin batera.

KATAKUMEEI xiringekin esnea ematen ari zen Agus baserriaren atarian. Kartoizko kutxa batetik hartzen zuen bat, bospasei xiringa esne irentsarazi eta kutxan uzten zuen atzera, hurrengoa hartu eta prozesua errepikatzeko. Harritu zen Maitane halako gizon mardula hain jarrera samurrean ikusirik.

—Egun on —esan zion.

Bekainak altxatze hutsarekin itzuli zion diosala Agusek.

—Ez da azaldu —esan zuen Maitanek.

—Piztiaren batek harrapatuko zuen.

Elena atera zen orduantxe baserritik.

—Egun on! Ondo egin duzu lo? —galdetu zion Maitaneri.

—Primeran, egia esan —bezperan edandako ardoak Ibuprofenoak baino dezente hobeto funtzionatu zuen.

—Gogoratu arratsaldean hitzordua dugula Antoninorekin, e?

La Encontradako jabeaz ari zela konturatu arte ez zuen erreakzionatu.

—A, bai, bai. Ez nago ahaztuta. 18:00etan, ezta?

Dutxa luze bat hartzeko aprobetxatu zuen Maitanek, nahiz eta, minutuek aurrera egin ahala, kontzientziako harrak txorrita ixtera eraman zuen, buruan jiraka hasi baitzitzaion haranean urarekin zeukaten arazoa. Erlaxatuta atera zen, edonola. Hilekoa ere azkenetan zuen: oso mingarriak baina nahiko motzak izaten zituen. Jaki goxoren bat prestatu eta kanpoaldeko mahaietan bazkalduko zuen, ez zegoen une oro aurrera eta atzera ibili beharrik. Eguzkia hartu, pixka bat irakurri, siestatxo bat egin beharbada... Ez al zen, ba, lasai egotera etorri?

Aulkian jarrita utzitako galtzaren atzeko poltsikotik bezperan hartutako papertxoa atera eta destolestu egin zuen. Sarrian bertan bizi zen, beraz. Denbora bazuen, egiazki, sobran izan ere. Begiradaxo bat soilik. Urrutitik. Edo kotxetik atera gabe. Bueltakoan Casa Areson bazkaltzeko aitzakia izango zuen horrela. Kozinatzen jarri behar al zuen oporretan ere?

Ongi pasa zuen bezperako afarian. Gustatu zitzaion Robertorekin elkartzea, hainbeste urte eta gero. Ederki jan zuen, gainera. Sukaldari bikaina egina zegoen Gorka. Casa Aresokoei kopiatutako errezeta hura, oreina perretxiko saltsan, itzela atera zitzaion. Harritu zuen jakitea hain sentibera zirudien gizona oreinak ehizatzen ibiltzen zela, eta ez edonola gainera: labanaz lepoa moztuta akabatzen zituzten, antolatutako taldeetan lurrera bota eta gero. Kartsuki mintzatu zen Gorka ekintza harekin askatzen zuen adrenalinaz, dir-dir egiten zioten begiek oreinari lepotik zerion odol epela hatz artetik ihesi nola joaten zitzaion deskribatu zuenean... Eskerrak postrean kontatu zion! Gorkak eta bere taldeak ehizatua ote zen platerean jarri zioten haragi puska hura!? Ez zuen galdetzeko ausardiarik bildu.

Bere burua makillatzen ipini zen ispiluaren aurrean, kafea martxan utzita. Gehiegi ere ez: kasik sumaezina izango zen zerbait, baina aski begi ertzeko zimurtxoak antzemanekin bihurtzeko.

Eta ukitu arin bat masailetan, kolorete apurño bat, aurpegi zurbil hura hildakoen erreinutik berreskuratzeko. Ezpainetako hartu zuen hatzen artean. Ez. Hori gehitxo zatekeen. Inor ez zen hainbeste apaintzen artzain eta nekazari artean ibiltzeko, ezpada Gasteizera joateko, edo Murgian paseatzeko asteburuaren aitzakiaz, baina ez ostegun buruzuri batean.

Kotxean barneratu zen, Robertok emandako helbidea sartu zuen mugikorraren GPSan. 17 minutuko bidea markatzen zion. Martxan jarri zuen kotxea, damutu baino lehen.

—ONGI JAN AL DUZU Casa Areson?

—Oso ondo.

—Ongi jaten da Casa Areson. Basurdea?

—Nola dakizu?

—Basurdea eskatu ohi duzue kanpotarrek. Basurdea edo oreina.

—Donostian ez dugu aukera handirik izaten-eta.

—Guk legatza edo rapea hautatuko genuke hara joanez gero, ezta, Omar?

Eurekin zihoan hamabi urteko Elenaren semea, ordura arte baserrian ez ikusi ez sentitu ez zuena Maitanek. Beste alaba bat ere bazeukaten, antza, Madrilen arte eszenikoak ikasten. Harritu zen Maitane, semea nola deitzen zen jakin zuenean; ez zen jende asko egongo, bertakoa izanik, arabiar jatorriko izena jartzen ziona semeari. La Encontradako baserria barrutik ikusteko esperantza zeukaten ama-semeek, berri zutenetik ez omen ziren sartu.

—Itsasoarekin lotura duen guztia gustatzen zaio Omarri: arrainak, arrantza, itsasontziak, itsasargiak... —segitu zuen Elenak.

—Arrantzale izan nahi al zenuke? —galdetu zion Maitanek.

Sorbaldak altxatu zituen mutikoak.

—Oso lanbide gogorra da —esan zuen Maitanek.

—Izenarengatik dela dio bere aitak. Galegoz “O mar” itsasoa da. “El mar”. Hara, erle bat. Ze arraroa...

—Arraroa?

Erlearen hegaldiari begira geratu ziren, pinuen atzean desagertu zen arte.

—Desorientatuta egongo da.

—Nola desorientatuta? —jakin nahi izan zuen Maitanek.

—Erlauntzetik gehiegi urrundu gabe ibili ohi dira, polen bila, edo nektar bila edo... Baina bi kilometroko erradio txikian beti. GPS moduko bat daukate, nola bueltatu jakin ahal izateko. Ba azken urte hauetan, askok eta askok ez dute aurkitzen erlauntzera itzultzeko bidea.

—Eta hori?

—Pestizidengatik dela diote batzuek. Mugikorren uhinengatik beste batzuek. Auskalo! Poloak urtzen ari direlako dela dioenik ere bada. Inork ez daki ziur zergatik den, baina kontua da dezente direla bueltatzen asmatzen ez dutenak.

—Eta ez badira bueltatzen...

—Hil egiten dira. Ezin dute gau bakar bat iraun erlauntzetik kanpora.

Maldan beherakoa hartu zuten. Errekaren murmurioa entzun zitekeen jada. Sarriako baserriarekin oroitu zen Maitane: zer arraiotan pentsatzen ari ote zen zuhaixken atzetik begira jardun zuenean! Eta norbaitek begiztatu izan balu zelatan? Edo Iñaki bera agertu izan balitz atzealdetik?! Eta numerito hura guztia, gainera, zer ikusteko? Pikaren etxea omen zena... Baratze

handi samarreko baserri zuri zikin handia, ez Robertorena bezain ongi zaharberritua, baina atsegina hala ere; baloi pare bat, hiru bizikleta edonola botata etxaurrean, hainbat jostailu, patinete bat... Eta emakume hura, etxe barrutik bat-batean atera zena (eskerrak ez zuen ikusi), atarian aparkatutako Seat Ibizaren atzeko esertokitik poltsa bat hartzera. Galtza zabalak, kamiseta malgua, ile horia mototsean trakeski lotuta... Hura al zen Pikaren bikotekidea? Ala garbitzailea ote?

Begiz jo zuten zubi esekia, Antoninok berak eraikitakoa omen. Haren oinetan zegoen zuhaitz bati lotua ikusi zuen Maitanek kartela: "Prohibido el paso, finca particular". Eta errotulagailu gorritz norbaitek idatzia: "El paso no está prohibido".

Altzairuzko txapa fin zulodun batzuekin osatuta zeukan zorua zubiak, eta alde banatan lorategiak mugatzeko izan ohi diren marrazki erronboduneko hesi berde horietakoak zituen, ibiltariaren beldurraren sostengu, nahiz eta ibaitxotik hiru metro eskasera soilik altxatzen zen, edo horrexegatik akaso: emari txikia zeraman; handik eroriz gero, buruarekin harria jotzea zen arriskurik handiena. Oso etxean egindako itxura zeukan. Segurua ote? Metro erdi zabal, doi igaro zitekeen pertsona bakar bat, eta Elenaren eta Omarren atzetik ilaran joatea, beste erremediorik ez zuen izan. Balantza nabarmena egiten zuen haien oinen azpian, baina onik iragan ziren beste aldera. Hantxe zuten zain etxaldearen jabea. Maitane bera zen, orduan ere, musukoarekin zihoan bakarra.

—Buenos días —egin zien diosala Antoninok—. Bienvenidos a La Encontrada.

Aurkezpenak egin zituen Elenak. Agure maitagarria zirudien. Osasuntsu antzematen zitzaion bere laurogeitaka urte eta guzti, aldakako minez zebilela esan zien arren. Ibai ertzean aparkatuta zuen 4x4 hartan egin zituen baserrirainoko 300 metroak. Gaztainondo ezalitateko erreka ezkerrean zutela, oinez jo zuen aurrera hirukoteak, aurrean zituzten makalen multzorantz. Zuhaitz haiek atzean utzi ahala ikusi zuten luze-zabal aurrean zeukaten paraje ederra: zelai ezin berdeago eta galanta begien aurrean, ezkerretik ibaiak mugatuta, eta eskuinaldetik haritzen basoak, eta larrearen erdi aldean ehunka behi, patxada ederrean bazkatzen. Euren presentziarekin, beldurtu eta urrundu beharrean, edo belar-janean segitu beharrean, gerturatu egin zitzaizkien, abereok ohi duten pausaje lasaiarekin baina eurengana jo zuten, eta hirukotearen pare-paretik igaro ziren, beraien aurrean geratu gabe, ibai ertzerantz zuzentzeko. Mugimendu geldo haiekin, gezurra bazirudien ere, euren lurraldea markatzen ari zirela iruditu zitzaion Maitaneri, baina auskalo, ezer gutxi zekien berak behiei buruz.

—Aztoratuta dabilta —esan zien Antoninok kotxetik jaitsi orduko, baserri parera iritsi zirenean—. Kumeak kendu genizkien atzo...

Hori zen, orduan. Behiak aztoratzen zirenik ere.

500 urte bazituen harrizko zubi eskerga erakutsi zien Antoninok, baserri zaharberrituaren ezaugarriak aletu zizkien: adreilu txikiz eta egurrez ondutako eraikuntza dotorea zen. Barrura sartzeko imintzio txikienik ere ez zuen egin, ordea.

—Ba al dakizue zenbat ordaindu genuen lur hauengatik? —galdetu zien agureak.

—Ideiarik ez.

—150.000 pezeta —esan zien—. Dirutza handia garai hartarako.

Antoninoren gurasoak bertako maizterrak omen ziren, nagusiak saldu egin nahi zuela esan zienean. 1950. urtea zen.

— Urtegia egiteko zulaketak abiatuak ziren ordurako. Zubitik 15 metro gora iristekoa zen ura. Pentsa! —azaldu zien Antoninok, zubi gaina eskuarekin seinalatuz—. Ederki dakizu zuk, Elena. Lukianon zuen etxea soilik libratzen zen.

—Eta egin izan balitz?! —galdetu zuen Maitanek.

—Egin zer, urtegia? —algara bat jaulki zuen Antoninok—. Ba ez dirurik, ez etxalderik.

Aberats berriei darien satisfazio aurpegia zeukan.

—Ederki arriskatu zineten, ala? —erantsi zuen Maitanek.

—Eta zer egin behar genuen? —besoak gorputzetik banandu zituen Antoninok, sorbaldak altxatuz—. Ez geneukan beste aukerarik. Hauxe zen gure bizibidea.

—Baina begira orain! —sartu zen tartean Elena, aurrean zuten lursail zabala besoekin besarkatuz.

Zelaira begira jarri zen laukotea. Bikote bat zetorren, zakur batekin, eurak etorritako bide beretik.

—Lotu zakurra! —garrasi egin zien Antoninok, modu aski petranean.

Pausoa moteldu zuen bikoteak, ez zirudien deus ulertu zutenik.

—Lotzeko zakurra! —oihukatu zuen berriz Antoninok.

Sokaz lotu zuten bulldog-a.

—Irakurtzen ez dakiten beste batzuk —murmurikatu zien Antoninok, bikotea gerturatzen zitzaien bitartean.

Isilik geratu ziren, parera heldu zitzaizkien arte.

—Behiak beldurtzen dizkidazue! —kargu hartu zien, aurrez aurre izan zituenean.

—Bale, bale... —erantzun zuen bulldogari eusten zion morroiak, eta eskuinera hartuz baserri aurrean, hanka egin zuten, geratu gabe.

—Ez dakit nik zergatik jartzen ditudan hainbeste kartel —esan zuen Antoninok, apur bat urrundu zirenean—. Eta hauek, gainera, zakurrarekin!

—Zenbat behi dituzu guztira? —galdetu zuen Maitanek hitz beste eginez, agurearen umore ona berreskuratu nahian.

—Nik al dakit... Galdua dut kontua dagoeneko... —erantzun zuen Antoninok, irribarretsu ostera ere.

—Ez al dakizu abeltzain bati ez zaiola sekula galdetu behar zenbat ganadu duen? —esan zion Elenak Maitaneri, doinu umoretsuz.

—Burdinolaren arrastoak ikusi nahi dituzue? Jende mordoak egin zuen hemen lan garai batean.

Aztarna urriak geratzen ziren, goroldioak hartutako horma sendoren bat, arku txiki bat... Nola arraio eraman ote zituzten hara halako harri puskek, duela 300 urte? Astoekin? Eta nola

kokatu haiek bata bestearen gainean? Baten batek ederki jardun izango zuen esklabo-lanetan...

Tira, piramideekin egin bazuten...

Hantxe agurtu zuten elkar.

—Ez digu barnealdea erakutsi, e... —esan zuen Elenak, baserritik pixka bat urundu orduko.

Etorritako bidetik abiatu ziren. Hantxe segitzen zuten behiek, larrean bazkatzen.

Entzundakoak entzunda, errespetua ematen zion Maitaneri haien aldamenetik pasatze hutsak.

Begira zeuzkaten mordoxka bat, eztarriratzen zaila zitzaien hitz bat mamurtzen ari balira legez belarraren partez: ume-lapurrak, ume-lapurrak, ume-lapurrak...

Casa Lafuentera iritsi bezain pronto, bere gelan sartu, eta etxera deitu zuen.

BIHARAMUNEAN, lanbroak estalita iratzarri zen bailara. Tutik ikusten ez, hiru-lau metrora. Ibili egin nahi edonola Maitanek, eta etxearen atzealdetik gora eginez, Ganalto aldera abiatu zen, aurrekoan egindako bidearen kontrako noranzkoan, ametz garaiez betetako basoan barna. Laino artean, erraldoi iharren tankera hartzen zien zuhaitzoi. Erraldoi hezurtsu mugiezinak. Putzu txikia igaro eta Agusen erlauntzak albo batera utzita, gorantz segitu zuen, behe-laino artean xendra nondik nora zihoan ikustea ondo kostatzen bazitzaion ere.

Zarata bat entzun zen bat-batean. Piztiaren bat ote? Geldirik geratu zen, ingurura begira. Belarriak erne, begiak adi ezker-eskuin. Behe-lainoak ez zion ordea urrunera ikusten uzten, nahiz eta abiatu zenean bezain sarria ez izan. Zerbait mugitzen igarri zuen berriz: zapaldutako hosto eta adarren soinua, pasaeran igurtzitako zuhaixken zarata. Eta ikusi egin zuen: orein bat ametzen artean pauso bizian mugitzen. Geratu egin zen animalia bera ere, eta lepoa biratu zuen Maitane zegoen alderantz. Zer egongo zen, ba, 20 metrora? Elkarri begira egon ziren segundo gutxi batzuez. Agudo abiatu zen ostera mendian gora. Maitanek ezin izan zuen nahi bezain ongi behatu, baina aski, ikusi ahal izateko ez zeukala adarrik.

Aldapan gora segitu zuen Maitanek, bizpahiru kilometroz. Bidegurutzera iritsi zenean, ordea, beheranzkoa hartu zuen, Ganalto puntara zihoan bideari muzin eginda. Ziztuan iritsi zen Aperregira, ehun bat baserriz osatutako herrigunera.

Diosala egin zion bere lursailetik ateratako oiloak barrura bultzatzen ari zen emakume bati.

—Egun on!

—Egun on, bai —erantzun zion emakumeak, bere esku zailduak soinean zeraman amantalean igurzten zituen bitartean.

70 urtetik gora izango zituela kalkulatu zuen Maitanek, aurpegian zituen zimurren arabera.

—Hau eguraldia, e... —esan zion Maitanek—. Gezurra dirudi maiatzean gaudela, ezta?

—Hemen elurra egiten ere badaki maiatzean.

—Ez da egia izango?

—Eta hala ere lehengoaren erdirik ez du botatzen orain. Zenbat egin du aurten ere?

—Otsaila aldera ez al zuen zuritu?

—Erauntsi handi bat. Eta kito. Gutxi botatzen du orain. Begira, ni ume moko bat nintzela, bidea ireki behar izaten genuen elurretan, eskolara joan ahal izateko. Metro erdi zabaleko bide estuak izaten ziren. Horma zuri haiek bakarrik ikusten genituen ibilbide osoan. Gu ginena baino garaiago elurra!

Pentsakor geratu zen Maitane, elur zuriko labirinto eder hura irudikatuz, haurrak imajinatuz eskolara bidean pareta hotz haien artetik igarotzen.

—Zer zaude, oporretan? —galdetu zion emakumeak, oiloei atea ixten zien bitartean. Hesiaz bestaldetik begiratzen zion orain Maitaneri, mesfidantza pixka batekin.

—Casa Lafuenten nago egun batzuk pasatzen, Lukianon, badakizu?

—Elenarenean.

—Horixe. Idazlea naiz —esanez batera damutu zen Maitane—. Beno, ez naiz idazlea, baina idatzi egiten dut. Bailarako kontuak aztertzen ari nintzen, ipuinen bat idazteko-edo. Ideiak biltzen...

—Hemen ez da inoiz izan gertakizun handirik... —esan zion emakumeak.

—Toki guztietan dago kontatzeko moduko zerbait...

—Hemen ez.

Irribarre egin zuen Maitanek.

—Bueno, ba, asko pozten naiz, e. Maitane Garate naiz, barkatu, ez dut nire burua aurkeztu...

—Bai. Ondo segi —esan zion emakumeak, bizkarra emanez, eta oiloei janaria botatzen hasi zen.

Oin artera hurbilduak zitzaizkion guztiak, konturatu orduko, eta zalaparta haren erdian zapaldu egin zuen bat nahi gabe. Haren karaka larrituak hautsi zuen une labur batez inguruko sosegua. Zaunkaka hasi zen zakur bat urrutian.

Lukianora bueltatu orduko, baratzean ziharduen Elenari galdetu zion, ea bazekien nor ote zen emakume hura. Baserriaren kokapena esatearekin batera identifikatu zuen Aperregiko emakumea, eta ziztuan kontatu zizkion haren nondik norakoak. Hizkera lehorrekoa, beharbada, baina guztiz bihotz onekoa omen zen Mari Carmen. Hila zuen senarra antza, eta umerik izan ez, baratzearen eta oiloen jiran igarotzen omen zuen eguna, nahiz eta garai batean ardi dezente izan zituzten, baita bizpahiru behi ere. Senarra ibiltzen omen zen artaldearekin aurrera eta atzera. “Bizitza samurrik ez dute izan. 86ko gabon gauean, ukuilua kiskali zitzaien”. Ez zegoen ahazteko Elena. “Ezusteko galanta!”. Bikotea lo zegoela hartu omen zuen su.

—Hemendik ikusten ziren garrak zerurantz igotzen. Eskerrak zakurrari! Hark atera zituen leihotik berrogei bat ardi, suhiltzaileak iritsi zirenerako. Dozena bat hil ziren hala ere, irten ezinik.

—Nola gertatu zen ba? —galdetu zion Maitanek.

—Gabon gauean prozesio moduko bat egiten zen zuzi eta guzti. Jesusen jaiotza, badakizu. Ba horri egotzi zion errua Mari Carmenek, zuzi haiei. Baina gaueko 9etan izaten zen hura, eta sutea goizeko hirurretan hasi zen. Ez dakit. Ordu asko iruditzen zaizkit niri. Tximiniatik ihes egindako txinparta batek lastoa harrapatuko zuen akaso. Auskalo zer gertatu zen.

—Baserria libratu zuten behintzat.

—Galera handiak izan zituzten, e? Baina denok lagundu genien. Ardi bat eman zion batek, oilo pareia besteak, txorizo batzuk hurrengoak... Bestela funtzionatzen zen lehen, elkarri laguntzen genion. Auzolanean jarduten ginen. Orain, berriz...

MURGIARA JOAN ZEN Maitane larunbat goizean. Hamabietarako geratua zegoen Robertorekin.

Ez zegoen beroegi, baina ateri bai behintzat, eta Zuia Cafe-ko terrazan jarri ziren. Besarkada handi bat eta baita bi musu ere eman zizkion Robertok, musukoa kentzearekin batera, “behin etorriko zara eta”. Ez zion utzi aulkitik altxatzen, ezta edan nahi zuena aukeratzen ere. Bi bermutekin eta oliba batzuekin itzuli zen mahaira.

—Bermuta hartu behar al dugu? —galdetu zion Maitanek.

—Ez, ala?

—Bueno, bueno... —esan zuen Maitanek, eta trago bat edan zuen—. Ona dago. Eta Gorka? Ez al da animatu?

—Etxezulo da hura. Oreinak akabatzen ari ez denean, noski.

Barre egin zuten. Hogei urte lehenago elkarrekin bizi izan zituzten kontuak aletzen aritu ziren luze eta zabal. Iñaki zen pelikula haien hirugarren protagonista ia guztietan.

—Nor ez zen ibili Pikaren atzetik? Baita ni neu ere! —esan zion Robertok.

—Bai zera!

—Horixe ba! Nanclareseko presoekin lanean jardundako mutil sentibera. Zer diot mutila? Gizon puska! Jatorra, guapoa, ulerkorra... Txora-txora nindukan! Baina beste batentzat zituen gordeak hark laztantxoak, ez al da hala? —begi-keinua egin zion Maitaneri—. Topa!

Edalontzian izotz koskorrak soilik geratu zitzaizkien arte segitu zuten garai hartako komeriak berpizten. Beste bat eskatzera altxatu zen Maitane, baina Robertok ez zion utzi. “Nire lurraldean gaude, laztana!”. Musukoa jantzi eta taberna barrura sartu zen ostera, eta denbora puska batera irten zen, beste bi bermut esku batean eta lau kroketadun platertxoak bestean zekartzala.

—Ze poza zu hemen egotea, Maita... —esan zion eseri zenean, eta eskutik heldu zion—. Bueno, eta kontadazu. Zer moduz doa zure egonaldia? Oso aldatuta topatu al duzu bailara?

—Pixka bat bai, e. Bueno, Murgia ez hainbeste. Lehen Bizkaiko jauntxoaren oporlekua zen, orain Gasteizko funtzionarioena. Jauregitxoaren ordeaz, adosatua, unifamiliarrak, txalet txikiak...

—Ertzainez beteta daude bazterrak...

—Ertzain eta erizain, ezta? —galdetu zuen Maitanek.

—Erizainak, medikuak... Ba al dakizu Villa Aspirina deitzen diotela Murgiako kale bati?

—Villa Aspirina?! —irribarre egin zuen Maitanek.

—Bueno, eta zu, zer? —galdetu zion Robertok, bermutari tragotxo bat ostu ostean—. Dena ongi Donostia aldean?

—Ezin kexatu. Lana badut, berria gainera!, familia polita, hiri paregabe bizi gara...

—Baina...

—Ez dago bainarik.

—Beti dago bainaren bat.

—Tira, denbora falta. Lana eta haurrak. Haurrak eta lana. Horretaraxe mugatzen da nire

egunerokoa. Egia esan, behar nuen arnasa apur bat. Distantzia hartu seme-alabengandik. Ez ulertu gaizki, izugarri maite ditut.

—Badakit, neska. Ez duzu esan beharrik.

—Baina itogarria da batzuetan.

—Pentsatzen dut... —kroketaren zatitxo bat irentsi zuen Robertok—. Mikelekin, dena ondo?

—Egoten garen gutxi hori, ondo... Baina ez dugu astirik. Lehen behintzat nire gurasoekin uzten genituen txikiak, bereak aspaldi hil ziren, badakizu.

—Ez nekien.

—Berdin dio. Kontua da ez dugula tarterik hartzen. Lehen afaltzera edo zinemara edo, joaten ginen tarteka. Covid-aren kontu arraio honekin, ordea... Ez naiz ausartzen haurrak gurasoekin uzten. Denbora hartu beharko genuke, nolabait. Biok elkarrekin egoteko. Ez gaude! —tragoa hartu zion bermutari—. Baina esango dizut egia? Are behar handiagoa neukan bakarrik egoteko... Behar nuen hutsarte moduko hau.

—Eta Iñaki, zer? —bota zion zart Robertok. Irribarrearekin leundu zuen galdera.

—Ez naiz berarengatik etorri —segitu zuen Maitanek—. Etxean bezala sentitzen naiz hemen, ezagutzen ditut tokiak, ederra da bailara, lasaia. Segurtasuna ematen dit. Eta ihesaldi txiki bat egiteko ez duzu Cancunera joan beharrik.

—Eta zure lagun Roberto bizi da bertan!

—Eta nire lagun min Roberto bizi da bertan!

Eskua heldu zioten elkarri. Topa egin zuten begietara begira.

—Eta zu zer? Ondo ikusten zaitut —esan zion Maitanek.

—Ondo nago.

—Jatorra da Gorka.

—Eta kristoren tramankulua dauka.

Algara betean lehertu ziren.

—Ez dakizu zenbat pozten naizen —esan zion Maitanek barreak itzali zirenean, berriz ere eskutik helduta.

—Zatoz bazkaltzera gurekin.

—Bai, zera.

Mugikorra atera zuen poltsikotik Robertok.

—Gorkari berdin izango zaio bi edo hiru bagara...

—Ezetz, Roberto. Asko eskertzen dizut.

—Bakarrik egon nahi baduzu, ulertzen dut, e. Baina gugatik, benetan...

—Gaur ez, Roberto. Alde egin baino lehen egingo dugu beste afari bat edo, hitza ematen dizut.

—Zin egiten didazu?

—Baietz ba! Baina nire kontura, e? —esan zion Maitanek.

—Donostian biltzen garenean egingo dugu zure kontura!

—Ez zarete sekula etortzen eta!

—Arrazoi duzu. Tarteka geratu beharko genuke. Bazkari bat egiteko edo. Baina bikotekiderik gabe. Gu biok bakarrik.

—Ados!

—Ostia! —esan zuen Robertok, ordulariari begiratuz—. Harategitik pasatu behar dut, itxi baino lehen.

—Segi! Egongo gara!

Altxatu egin ziren elkar besarkatzeko. Eskuetatik helduta jarri ziren elkarri begira.

—Deituiozu —esan zion Robertok—. Hemen ondoan bizi da. Ez zaitetz tuntuna izan.

—Ikusiko dut.

—Sinetsidazu —erantsi zuen Robertok bekain bat altxatuz—. Igurtzi eder bat emateko modukoa dago oraindik...

Roberto nola aldentzen zen behatu zuen Maitanek irribarrez. Udaletxearen atzean ezkutatu zenean, segapotoa atera eta Iñakiren izena bilatu zuen WhatsApp-ean. Gorbeiaiko gurutzearen argazki bat zeukan paratuta profilean. “Kaixo, Iñaki, Maitane naiz. Maitane Garate”, hasi zen idazten, bitan pentsatu gabe.

CASA ARESON bazkaltzen geratzekotan egon zen, baina mukurua betea egongo zela-eta larunbata izanik, Lukianorako bidea hartu zuen. Gidatzea: mugikorra une oro ez begiratzeko modu koldar hori. Jakinarazpenaren zarata entzun zuen Bitorianoko herrigunea atzean utzi ahala, eta ezin izan zuen itxaron. Bihurgunerik gabeko zuzen luze samar baten erdian kotxea gerarazi eta larrialdietako argiei eragin zien. Senarraren mezu bat zen, ordea. Seme-alaben argazki bat bidaltzen zion: buztinarekin eskuak zikin-zikin zituztela ageri ziren biak barrez lehertzen, amantal koloredun bana jantzita soinean. “Gaur Donostia aldean, euria eta eskulanak! Segi gozaten! mZ!”. Martxan jarri zuen kotxea. Apetitoa ere joana zitzaion bat-batean.

Patata tortilla bat egitea deliberatu zuen Casa Lafuentera iritsi orduko, ea sukaldean zebilen bitartean gosetzen zen. Mugikorrari begiratu zion, ez ote zuen soinua nahi gabe desaktibatu izango. Patatak zuritu, zati txikitan ebaki. Bere burua madarikatu zuen: zergatik ez ote zion eutsi bulkadari? Larunbata zen, eta bazkalordua! Nori okurritzen zaio... Umeak izango zituen jira-biraka inguruan, edo emaztea. Astelehenera arte itxaron izan balu sikiera... Sakelakoa hartu zuen eskuetan. Bidalitako mezua ezaba zezakeen akaso, baina, eta konturatzen bazen? Okerragoa zatekeen... Urdinez zeuden WhatsApp-eko check-ak; ez zeukan atzerabiderik kontuak.

Gogo barik irentsi zuen patata tortilla. Irakurtzeko ere egonarririk gabe geratua zen. Facebook-en sartu zen. Aspalditik ziren han lagunak Iñaki eta biak. Bere azken argitalpena otsailekoa zen. Izerdi hotza sartu zitzaion bat-batean. Eta bere mezua emazteak irakurtzen bazuen? Konprometitzeko moduko ezer ez zuen jarri, baina...

Kanpora atera zen, paseo bat ematea zuen onena, mugikorra bertan utzita. Ez zuen misterio handirik herriak, baina miatu beharko zituen ba hobetoxeago bertako txokoak...

Elizaraino joan zen, bolatokia behatu zuen kanpoko leihotik. Kurioso egiten zitzaion inguru hartan bola-jokorako zeukaten tradizio handia, herri guztietan zegoen halako bat. Bide nagusitik etorrira, gora egin zuen eskaileretatik. Norbait lanean ari zen, nahiz eta larunbat arratsa izan. Etxe bat zaharberritzen ari ziren. Pareko baserriko agurea eserita zegoen atariko petrilean, bastoi eta guzti.

—Portugesak dira —esan zion Maitaneri, zeri begira zegoen ikusita—. Sekulako fundamentua dute. Martxa honetan laster egingo dira guztiaren jaun eta jabe. Zortzi egunetan altxatu dute hori. Guri hilabeteen berritu ziguten baserria, gremio bakoitzetik pertsona bana etorrira. Lau gizonen artean, e! Igeltsero, linternerero eta beste! Hemengo profesionalak, badakizu... Eta begira hauek! Bi astean prest izango dute, hasi eta buka!

Gorantz zuzendu zuen begiratua Maitanek. Agurearen gibelean zegoen baserri puska hari jarri zion arreta.

—Dotore geratu zaizue, behintzat.

—Ikusi nahi?

—Zuri ez bazaizu axola...

—Zatoz —esan zion agureak, eta altxatu egin zen bastoiaren laguntzaz.

Atzetik segitu zion Maitanek etxe barrura, herren apur bat egiten zuen. Tximinia berriarenak, egurrezko mahai sendo baten antzinatasunarenak, Domaikiako apaizak eskuz tailatutako kutxa dotorearenak... Etxearen historia osatzen zuten kontu guztiak aletu zizkion.

Oilo mordo bat hazi omen zituzten garai batean.

—Txitak erosi genituen. Ez bat eta ez bi. Mila eta berrehun —algara txiki bat itzuri zitzaion hortzen artetik—. Terreno handia dugu, baina toki epelik ez guztientzat, eta negu gorria zen. Ikusten duzu gela hau? Sei metro luze, bost zabal. Hementxe gorde genituen mila eta berrehun txitak, hilabetez.

—Hemen?

Barre egin zuen agureak. Irudi hura imajinatzen saiatu zen Maitane. 1.200 txita, 30 metro karratutan... Nola liteke!

Sukaldera eraman zuen agureak. Modernoa ikusten zen halako baserri baterako.

—Begira —esan zion indukziozko sua seinalatuz—. Ekonomikaren aldean kaka zaharra da, baina tira. Zer esan behar diozu alabari? Laster dena berarena izango da-eta.

—Mila esker azalpenengatik —esan zion, baserritik atera ahala—. Maitane naiz.

—Casa Lafuentekoa, badakit.

Halako tokietan misterio gutxi.

Herrigunetik irten zen, agurea petrilean utzita topatu zuen eran, eta La Encontradara zihoan bidetari muzin eginda, buelta hartu zuen astiro. Baratzean zegoen Elena, Casa Lafuentera iritsi zenean.

—Dena ondo? —galdetu zion Maitaneri, eskua bisera gisa jarrita. Azken orduko eguzkiak justu begietan ematen zion—. Lukianotar guztiak ezagutuko zenituen honezkero.

—Beraiek ni bai behintzat.

Irribarre egin zuen Elenak. Ez al zeukan nekatu aurpegia?, egin zuen berekiko Maitanek. Begi-zulo horiek...

—Itxaron —esan zuen, aitzurra uztearekin batera—. Mamia egin dut.

Atarian itxoin zuen, Elena itzuli arte.

—Tori.

Katakume baten burua azaldu zen ustekabearen atzean.

—Hara! —esan zuen Maitanek eta laztan batzuk egitera makurtu zen.

—Bi hil zaizkigu bart.

Zegoen lekutik behatu zuen Maitanek etxeakoandrea, behetik gora begiratu. Katakume beltza eskuetan hartu eta jaiki egin zen. Ez zen bere esku bat baino askoz handiagoa. Zango bat altxatzen zuen, atzamarka egiteko imintzioan. Ez zuen azkazalik, artean.

—Politak dira, baina... —segitu zuen Elenak—. Benetan esaten dizut, nik ja ezin dut gehiago. Bi orduan behin eman behar zaie esnea. Baita gauz ere! Eta poltsa beroaren ura aldatu, hozten den bakoitzean. Ez ditut 25_urte, nire seme-alabak hazi nituenean bezala.

Eta ez dira zure seme-alabak, pentsatu zuen Maitanek, katakumeari laztanak egiten zizkion bitartean.

—Zuk zaindu nahi badituzu... —iradoki zion Elenak irribarre erdi batez.

—Ez, ez. Eskerrik asko —esan zion Maitanek, eta Elenaren eskuetan utzi zuen aberetxoa ziztuan.

Etxera deitu zuen, estudiora sartu orduko. Bitan hots egin zuen, hirutan, lautan. Baina zer ostia...

—Maita! —egin zion ongietorria azkenean Mikelek, eta arnasa hartu ahal izan zuen.

Euforia aire bat hartu zion senarraren ahotsari. Zergatik arraio ote zegoen hain pozik? Azken berriak kontatu zizkion. Joder, bera gabe dena hobeto zihoala ematen zuen. Nola liteke? Ez alferrikako haserrerik, ez garrasirik, ez ezer?! Batere suhartasunik gabe aletu zizkion Maitanek egun haietako gorabeherak.

—Itxoin! Umeekin jarriko zaitut.

Bi hurren arteko borroka txiki bat entzun zuen telefonoaz bestaldean: mugikorra nork lehenago hartu eztabaidan ari ziren. Txikienari eman zion lehentasuna senarrak.

—Amaaaa! —esan zion alabak.

Ustekabean, malko isilak zerizkion begietatik Maitaneri. Bere burua kontrolatzera behartu zuen. Malkoak sikatu eta bere seme-alabekin taxuzko elkarrizketa bana izatea lortu zuen behintzat.

—Ez duzu egunero deitzen ibili beharrik, e? Primeran gaude —esan zion senarrak, ostera ere mugikorraren jabe egin zenean—. Lasai egon, erlaxatu. Eta gozatu! Aprobetxatu zure erretiroa!

Deia eten eta minutu batera iritsi zen Pikaren erantzuna, “Maita! Hau poza!”, hasten zen mezua, eta hitzordua proposatzen zion astelehenerako, Murgian bertan. Iñaki Pikabea, Pika. Bizirik zegoen, beraz. Nola ez. “Primeran”, ipini zuen Maitanek, baina ezabatu egin zuen mezua, idatzi orduko.

IGANDEA LASAI HARTZEA erabaki zuen, jende andana ibiliko zen Murgian, zer esanik ez Gorbeian. Estudiotik atariko mahaira, izpiak ikusten zituenean; atariko mahaitik estudioko sofara, eguzkia hodeien atzean ezkututzen zenean... Etxekoandreak utzitako Gorbeialdeko kontuei buruzko liburu bat irakurtzen eman zuen eguna. Baziren laminen_istorioak, sorginenak, animalia mitologikoenak, artzainenak, ehiztarienak. Aspaldi ez zela, txistuka eta builaka abiatzen omen ziren talde handitan inguruotako biztanleak, otsoak beldurtu eta amildegira erorarazteko. Murgiako neskamearenak erakarri zion arreta, duela 700 urteko istorioa izan arren. Gabon gau batean abiatu omen zen Murgiatik Orozkoko bere baserrira neskatxa gaztea, Gabonak bere familiarekin igarotzeko. Iristen ez, ordea. Gaixotu eta Murgian bertan geratua izango zela pentsatu omen zuen bere familiak. Batean eta bestean falta zela konturatu zirenean abiatu ziren denak neskatilaren bila. Haren arropak eta hezurak soilik topatu omen zituzten, Oderiaga mendiaren magalean. Gurutze handi bat altxatu zuten inguru horretan, neskatilaren oroimenez: “Una chica le comió el lobo. 24 diciembre 1308. Caserío Arane”. Zorigaitz guztiak Gabon gauean gertatzen al ziren han, ala zer arraio?

Sukaldera jaiki zen. Baso bat ur edan zuen. Komunera sartu zen, eskuko telefonoa hartuta. Berriz leitu zuen Pikaren mezua, “Maita! Hau poza!”. Hantxe segitzen zuen Gorbeiaiko gurutzeak bere profileko argazkian.

“Primeran!” idatzi zuen Maitanek, “11:00etan Zuia Plaza kafetegian. Bihar arte!”.

Bidali.

ISPILUAREN AURREAN pasa zitzaion hurrengo goiza: ilea txukundu, orraztu, forma eman. Begiak, ezpainak, masailak. Sotiltasunaren muga igaro gabe betiere. Kafe luze bat zintzurreratzeko kemena besterik ez zuen izan.

Elenarekin egin zuen topo, baserri atarira irten zenean. Etxeko txabusinarekin jantzita zegoen, ilea guztiz aldrebestuta, sekulako begi-zuloak...

—Beste bat hil zaigu —esan zion ikusi orduko. Ez egun on, ez ezer.

Geldirik geratu zen Maitane etxekoandreaki begira, kotxeko giltzak eskuan. Alderri zebilen Elena, zerbaiten bila ariko balitz bezala. Flanelazko pijama berdekara maiztu bat antzematen zitzaion, erdi zabalik zeraman txabusinaren azpitik.

—Murgiara joan behar dut —esan zion Maitanek—. Nahi duzu zerbait ekartzea? Ogia ala...

—Ez.

Agus ikusi zuen lehenengo solairuko leihotik beraiei begira: gerritik gora biluzik, eta katakume zuri-marroi bat eskuetan. Diosala egin zion Maitanek, eta buruaren keinu minimo batekin erantzun zion gizonak. Kotxean sartu, eta Murgiara bidean jarri zen.

Zuia Plaza kafetegiaren aurrean zegoen aparkalekuan geratu zuen kotxea; garaiz zebilen, laurden gutxi ziren. Bere burua behatu zuen atzerako ispiluan: ile hura atondu beharra zeukan. Bolumen pixka bat gehiago ematen saiatu zen eskuarekin. Auto barruan geratu zen, bertatik lñaki gerturatzen begiztatuko zuen esperantzarekin. Ikusia izan gabe ikustearen tranpa txiki hura.

Hamaikak puntuan iritsi zen Pika. Galtza bakeroak eta kamiseta mahuka motz granatea, ez jertserik, ez jakarik, zapatila beltz-gorriak zeramatzan. Beso gihartsuak antzeman ahal izan zizkion. Baratzean zaildutakoak ote? Ala eskalatzen segituko al zuen?

Kafetegira iritsi baino metro batzuk lehenago makurtu egin zen lñaki ustekabean, tira egin zion eskuineko zapata gainean trabatuta geratutako galtzaren zatiari, xuxen jartzeko. Terrazako mahai bat aukeratu zuen, parean tokatu zitzaiona, eta eseri egin zen, inguruari behako azkar bat eman ondoren. Musukoa kendu eta sakelakoa atera zuen. Maitaneren zain ote zegoen, zerbait eskatzera sartzeko? Mugikorra behatu eta ezker-eskuin begira jarri zen. Ilea atondu zuen apur bat ezker eskuarekin, keinu aski automatiko batekin.

Hantxe zeukan, muturren aurrean. Ile kizkurra apur bat urdintzen hasia, bizarra ondo baino hobeto egina, zimur dezente aurpegian, ez ziren urteak alferrik pasa. Baina bera zen. lñaki Pikabea. Pika. Begiratu hutsarekin maitemintzen zinen tipo berbera.

Hantxe zegoen. 20 urte eta gero, 30 metro eskasera. Eta irudipen bat izan zuen orduantxe. lñakiren begiek berarekin topo egiten zutela imajinatu zuen, elkarri so geratzen zirela bi-hiru segundoz, eta ziztuan alde egiten zuela gero, ihesi, ametsen basoan barrena.

Kotxeko atea ireki eta berarengana abiatu zen, beranduegi baino lehen.

Ederra izan zen lñakiren aurpegia aldatzen ikustea, ezerezera so zeuzkan begi haiek azkenean berarengan finkatu zirenean. Piztu egin zen gizona bat-batean, irribarrea ernatu zitzaion

luze eta zabal, altxatu egin zen aukitik:

—Maita!

Besarkada luze bat eman zioten elkarri, eta hala elkar bildurik zeudela, Iñakiren bihotza sentitu zuen Maitanek bere eskuineko bularraren kontra, taupaka erritmo bizian. Segundo luzez iraun zuten txirikordatuta, hantxe, Murgiako plazaren erdian, eta azkenean euren gorputzak banandutakoan, elkarri besaurreetatik helduta geratu ziren, parez pare, eta Maitaneri iruditu zitzaion, irribarrez egonagatik ere, malko banaren itzala zeukala Iñakik begi bietan.

Hitzik esan ezin gabe eseri ziren mahaira. Elkarren aldamenean jarrita geratu ziren, isilik. Maitaneren belaun gainean bi kolpetxo eman zituen Pikak, han zegoela ziurtatu nahi balu bezala, eta hirugarrenean bertan utzi zuen eskua, eta haren gainean jarri zuen Maitanek berea. Begi ertza igurtzi zuen Iñakik.

—Puf! —esan zuen azkenean, belaun gaineko eskua erretiratuz.

—Puf! —errepikatu zuen Maitanek aire isekari leun batekin, bekainak altxatuz eta irribarre eginez.

—Nahi duzu zerbait? —galdetu zuen Iñakik, altxatzeko imintzinoa egitearekin batera—. Garagardo bat behar dut.

—Bi.

Baiezko txiki bat marraztu zuen Iñakik buruarekin, eta tabernara sartu zen. Mugikorra atera zuen Maitanek poltsatik: deirik ez, mezurik ez. Bolumena igo eta wifia eta datuak desaktibatu zituen. Bueltan zetorren Iñaki, bi baso garagardorekin, begitarte alaiagoa zekarren.

—Orain bai! —esan zuen bozkario antzeztu samarrez, eta gero begiak kizkurtuz—: Nola esan duzu deitzen zarela?

Barre egin zuten.

—Gugatik! —esan zuen Iñakik, eta topa egin zuten, edalontzia edalontziaren kontra jarriarik, klink—. Nork eman dizu nire telefonoa.

—Robertok.

—Joder, klaro —eta beste trago bat edan zuen—. Gauza asko kontatu behar dizkidazu, e?

—Baita zuk ere niri...

—Badakizu? Hemen zure zain nengoela, irudipena izan dut ez zinela azalduko, damutu egingo zinela azken unean.

—Ba hemen nago —esan zion Maitanek.

—Eta asko pozten naiz.

—Ni ere bai.

Beste trago bana hartu zuten.

—Noiz arte geratzen zara.

—Igandera arte.

—A bai? Ze ondo! —pentsakor gelditu zen une batez—. Nahiko zenuke egun hauetako batean nirekin eskalatzera etorri?

Irribarre egin zuen Maitanek. Duela 20 urteko eszena bera errepikatzen ari zela zirudien.

—Bihar Gorbeiarra joatekoa nintzen —esan zion Maitanek—. Gogoratzen? Ez ginen gailurrera iritsi...

—Egia.

—Zuk igoko zenuen harrezkero.

—Hamaika aldiz. Bihar klaseak ditut. Zer iruditzen etzi geratzen bagara?

—Gorbeiarra joateko?

—Eskalatzera. Ez al zoaz ba bihar Gorbeiarra?

Irribarre egin zuten, gaizki ulertua tarteko.

—Nora nahi duzu joan eskalatzera, Oroko Santutegira? —galdetu zion Maitanek.

—Adibidez —erantzun zuen Iñakik.

—Eta etzi ez al daukazu, ba, klaserik?

—Arratsaldez bakarrik.

—Nik ez daukat materialik, ez katu-hankarik, ez ezer.

—Utziko dizkizut nik.

Garagardoa hustu zuen Iñakik azken trago luze batekin.

—Nahi duzu beste bat? —galdetu zion Maitaneri.

BERE BURUARI hasieratik jarri zion erronka izan zen, bidaia hau antolatu zuenean: igo beharra zeukan Gorbealara, bai ala bai. Hogei urte lehenago saiatu zen behin Iñakirekin, baina sekulako ekaitza atera eta buelta hartu behar izan zuten, gailurrera iritsi baino dezente lehenago. Gero, alferkeriagatik batzuetan, eta Iñakik ere nahiago izaten zuelako eskalatzera joan bestetan, edo desiraren eldarnioak harturik larrua jotzen bukatzen zutelako hainbeste aldiz baten edo bestearen Gasteizko pisu konpartituan edo Oroko Santutegiko parkingean edo bailarako beste txoko ezkuturen batean, igo gabe geratu zen azkenean. Orain, ez zegoen uko egiteko prest.

Eguraldi bikaina emana zegoen eta 08:30ean jarri zuen hitzordua Agusekin. Kotxe banatan egin zuten Sarriako parketxerako bidea, eta Maitanek berea han utzi ondoren, Agusen tankera sartu zen, Zaratera abiatzeko.

—Gorbeiazen Araba aldeko bi bailarak ibili ahal izango dituzu horrela. Bata, igotzerakoan; eta bestea, jaitsieran —azaldu zion Agusek, bezperan hitz egin zutenean.

Kopilotuaren eserlekuan eseri zen Maitane, eta maskara jantzi baino lehentxeago, irribarre erdi bat egin zion Agusi, adeitsu agertu nahian. Beldur apur bat ematen zion gizonkote hark, ez zekien ondo zergatik.

—Zer moduz gaurko gaua? Egin al duzue batere lorik? —galdetu zion Maitanek.

Bekainak eta begi-niniak goratu zituen Agusek, desesperaziozko keinu batean. Ez zeraman ez musukorik ez ezer.

—Ari al dira sendotzen? —jakin nahi izan zuen Maitanek.

—Bat bai, bestea berriz...

—Bel-beltza den hori?

—Oso ahul dago...—esan zion Agusek—. Nahi duzu egia esatea? Nik ez nuke bi katakume txororengatik lorik galduko, baina...

09:00ak pasatxo ziren, Zarate herritik gora, Gorbealara bidean jarri zenean. Mugikorrean, Iñakiren mezu bat: “Bidali argazkia tontorretik!”.

—Zenbat tardatuko dut buelta egiten? —galdetu zion Agusi, kotxetik atera ahala.

—Bost bat orduan egiten da. Bi ordu eta erdi gora, eta beste hainbeste Sarriako parketxera jaisteko. Gurutzean zenbat denbora egoten zaren...

—Igotzeko adina denbora, jaisteko?

—Zortzi kilometrokoa da igoerako bidea. Hamabikoa jaitsiera. Eta gogoratu: gurutzera iristen zarenean, kontrako bidetik egin beherantz, “v” zabal bat marraztuz.

—Ondo da.

—Bizkaiko aldera jaitsi gabe, e? —gaztigatu zuen Agusek. Irribarrez ikusten zuen lehen aldia zen.

—Saiatuko naiz...

—Bestela, deitu, eta joango gara zure bila.

—Horrekin? —galdetu zion Maitanek kotxea seinalatuz.

—Ia gurutzeraino iristea daukat...

—Bai zera!

—Ez zen lehendabiziko aldia izango.

Aspaldi halako mendirik igo ez eta, nekeza gertatu zitzaion igoera kasik etenik gabea. Pagazurira iristeko soilik behar izan zituen bi ordu eta erdi. Handixetik, azken aldapa pikoa zeukan aurrez aurre, desafio eginez, nahiz eta gurutze erraldoiaren ikuspegiak dezente adoretzen zuen: ez zirudien urrunegi. Ia hiru ordu laurden baliatu zituen hala ere, 17 metroko Eiffel Dorre txiki haren azpian kokatzeko bere burua. Iritsia zen azkenean!

Harritu zuen, maiatzeko astearte buruzuri bat izan arren, tontorrean zegoen jende mordoak: erretiratu kuadrilla bat, bera bezalako ibiltari bakarti bat gurutzetik aparte samar jarrita Bizkaiko aldera begira sagar bat janez, zakurrarekin jolasten ari ziren hiru mutil gazte, bi bikote elkarri argazkiak ateratzen... Egin beharko zuen berak ere baten bat gurutze legendario harekin.

Inguruari erreparatu zion, ur pixka bat edan orduko. Haiek bistak 360 gradutan. Iparrera Bizkaia, hegoaldera Araba. Hantxe zegoen mugarrria... Erretiratu kuadrillako gizon bati galdegin zion argazkia ateratzeko, betikotu beharra zeukan une hura.

—Ongi? —galdetu zion argazkigileak, egindako fotografia begiratzeko esan ostean—. Egingo dizut beste bat, bestela, e?

—Ez, ez, primeran —erantzun zion Maitanek—. Mila esker.

Ez zuen bere burua ondoegi ikusten, baina tira, bidali egin zion hala ere Iñakiri. “Iritsi naiz!”, idatzi zion. “Ez zara makala!”, erantzun zion honek segituan. Senarrari ere bidali zion, “hara non nagoen oraintxe bertan!”. Txaloekin erantzun zion honek, eta seme-alaben argazki batekin: txoroarena eginez ageri ziren salako sofan zilipurdika. “Hau panorama!”, jartzen zion senarrak, eta begi-keinu bat segidan. Ez al zeuden ba eskolan? Asteburukoa behar zuen argazki hark.

Gurutzetik apur bat urrutiratu eta hamabietakoa egitera eseri zen, Araba aldera begira. Sierra Salvada behar zuen hondo-hondoko hark, eta herri hura? Murgia? Zergatik zeuden gainerako mendizale guztiak Bizkaia aldera begira? Zenbait zuiarrek esana ziotenaz oroitu zen, probintziako gehienek omen daukaten irudipenaz, alegia, hutsaren hurrengo delat Araba euskaldun askorentzat, patata-soro erraldoi bat besterik ez, familiako lehengusu tontoa, Gorbeia puntara igo eta bizkarra ematen zaion eremu hori.

Fruitu lehor batzuk irentsi zituen, baita solomo-ogitartekoa ere piper gorri eta guzti. Ura edan zuen berriz, ez al zen txikiegia plastikozko botilatxo hori? Bueltako bide luzea geratzen zitzaion. 12 kilometro... Motxilan gorde zuen; balio beharko zion udareak, izerdiarekin botatakoak berreskuratzen. Etzan egin zen begiak itxita, ondo berotzen zuen eguzkiak, txokolate ontza bat ekarri izan balu...

Beherantz abiatu zen utzi berri zuen tokiaren nostalgia apur bat sentituz. Itzuliko ote zen sekula? Seguruena ez. Ziurrenik nahiago izango zuen, hura toki ederra izanagatik ere, ezagutu gabeko beste tontorren bat zapaltzeko ahalegina egin. Anboto, adibidez.

Izen bat gehiago, bere bizitzan sekula berriz bisitatuko ez zituen toki ahaztezin zerrendarako.

Gorbeia.

Mapa begiratu zuen mugikorrean, ondo ote zihoan egiaztatzeko. Ez zen markatutako biderik, baina Agusek aipatutako "v" a eginez, nabarmen samarra zirudien Sarriako parketxera zeraman bidezidorrera irtengo zela.

Artalde bat zegoen berak pasa behar zuen tokian bertan; arraroa iruditu zitzaion, batere artzainik eta zakurrik gabe egotea. Harantz bideratu zituen urratsak, mendi magalean behera eginez. Zer azkar galtzen zen gurutzearen ikuspegia alde hartatik. Konturatzeko atzean utzia zuen, azken bistadizoa emateko aukera galdua.

Geratu egin zen bat-batean, artaldetik hamar metrora gerturatutakoan. Ardi bat gehiago uste izan zuena, makurtuta eta eraso jotzeko pronto zegoen mastin zuri bat zen! Parez pare zeukan, eta postura hartan, edozein unetan bere gainera jauzi egiteko prest zirudien... Bizkarra eman zion zakurtzarrari, aurre egitea baino atzea ematea hobe zelako irudipenarekin. Etorritako bidetik egin zituen Maitanek hogeitau pauso, artaldetik urrunduz. Piztiaren arnasa sentitzen zuen gibelean, berarengandik metro erdi eskasera; jugularrean, bihotzeko taupada bortitzak. Atzetik segika zihoakion, bere lurraldea markatuz, bere nagusitasuna adieraziz, baina pauso motelean, batere aztoramendurik eta zaunkarik gabe. Begi ertzarekin behatu zuen, burua erabat biratzeko ezgauza. Alimalekoa zen! Bere zilborretik gora egiten zuen haren buruak. Nola demontre ez ote zuen lehenago ikusi? Etxanda egongo zen ardi artean, haietako bat balitz bezala... Hori eta bere astigmatismoa. Ez zeukan bestelako azalpenik.

Maitaneri segitzeari utzi zion azkenean mastin zuri erraldoiak, nahikoa urundu zela ikusi zuelarik. Artaldea zegoen tokitik igaro behar zuen edonola parketxera iritsi nahi bazuen, horrek ez zeukan bueltarik, baina ardiak ongi inguratuz egin beharko zuen itzulbira. Eskerrak mendiaren magalaren zabalak hori egiteko aukera ematen zion. Begira izan zuen mastintzarra, zegoen tokitik mugitu ere egin gabe, lepoa soilik biratuz Maitane nondik nora zihoan zaintzeko, harik eta artaldea ondo atzean utzi zuen arte.

Luze jo zion beherako bideak, baina bestelako ezustekorik gabe egin zuen. Nekatuta baina asebeteta iritsi zen Sarriako parketxera, goseturik baina batez ere egarriturik. Murgian geratuko zuen autoa, bai horixe, loar tabernan litro erdiko lejia bat edateko, ondo irabazia zeukan!, Araban ez al zioten pika deitzen?!

BEZPERAKO ARROPA BERA jantzi beste erremediorik ez zuen izan, ez baitzeukan eskalatzeko egokiagorik. Fundamentuzkoak ziren galtza elastiko haiek, baina mendiko botekin eskalatu behar bazuen... Ala bere emaztearen katu-hankak utziko zizkion Iñakik? Tailla berekoak ote ziren, ba? Eskalatzea gustatzen zitzaion, beraz? Zer antzekotasun gehiago izango zituzten? Eta zer desberdintasun? Bera baino hobea ote zen ohean? Bera baino lirainagoa, jatorragoa, pazientzia handiagokoa? Titi oparagoak ote zituen?

Autobide gainetik igarotzen zen zubiaren ondoko parking-ean egin zuten hitzordua, kotxe batean joatearren. Hantxe zegoen Iñaki, irribarretsu, motxila handia bizkarrean eta auto-stopeko keinua eginez hatz lodiarekin. Atzeko jarlekuan utzi trasteak, eta kopilotuaren eserlekuan sartu zen, Maitanek motorra itzaltzera itxoin gabe.

—Egun on! —esan zion Iñakik, aldarte ezin hobearrekin.

—Dena prest?

—Baietz uste dut. Ostia, itxaron.

—Zer.

—Kondoiak!

Begi-zeharka begiratu zion Maitanek. Ai, aurpegi bihurri hura... Zimurrak ateratzen zaizkigu, ilea urdintzen zaigu, baina geure-geureak diren keinuak... Horiek betiko irauten dute. Lasaiago zegoela zirudien, bi egun aski izan zituen antza, Maitaneren etorrerak eragindako shocka gainditzeko. Hobe hala.

—Gogoratzen al duzu bidea? —galdetu zion Iñakik kopilotuaren eserlekitik.

—Gauza batzuk ez dira sekula ahazten.

Esatea aski, hanka sartzeko. Iñakik gatzigatu behar izan zuen, Ororako bidea pasatzen utz ez zezan.

—Gauza batzuk ez dira sekula ahazten, e? —xaxatu zuen Pikak.

—Garrantzitsuak direnak. Nork oroitzen ditu bigarren mailako errepideak? Arrastorik uzten ez duten gizonak?

—Labanak zorrotzuta ekarri dituzu, e? —barrez, Iñakik.

—Sokaren bat moztu behar bada ere... —Maitanek, irribarre maltzurrarekin.

Oroko Santutegiko aparkalekuan zeuden 15 minutuan. Kotxe bakarra ageri zen han, apaizarena edo auskalo norena. Motorra itzali eta elkarri begira geratu ziren une batez: ezin itzuri egin, nahi izanda ere, pilatzen zitzaizkien oroitzapenei.

—Joango gara? —hautsi zuen sorginkeria Iñakik, eta kotxetik atera ziren.

Hormaren azpian kokatu ziren, 20 urte lehenago horrenbeste aldiz egin izan zuten moduan, eta materiala ateratzen hasi zen Iñaki.

—Uste dut ondo izango dituzula —esan zion Maitaneri, katu-hankak bere eskuetan jarri ahala.

—Nire taillakoak dira, bai.

Ez zen ausartu bere bikotekidearenak ote ziren galdetzen.

—Benga! —esan zion Pikak, arnesak janztearekin batera—. Zure txanda!

—Praktika galduta daukat, e!

—Aitzakia gutxiago eta mugitu ipurdia gehiago!

Ondo kosta zitzaion Maitaneri horman gora abiatzea. Hiru aldiz saiatu, eta hiru aldiz erori zen, bi metroko altueratik igaro ezinik. Lurretik metro erdira geratzen zen zintzilik, eskerrak Pikak soka garaiz tenkatzen zuen.

—Ez zara nahita egiten ariko, ezta? —galdetu zion Iñakik, hortzak erakutsiz.

—Esan dizut entrenatu gabe nagoela...

—Ondo da, ondo da.

Beste bi saiakera egin zituen, alferrik. Hirugarrenean, dezente igotzea lortu zuen. Erdiraino edo. Baina nekatu egin zitzaizkion hatzak, eta zintzilik geratu zen paretaren erdian, hamar bat metroko altueran. Iñakik soka pixkanaka laxatzea tokatzen zen orduan, Maitane rappel egiten jaits zedin. Ez zuen halakorik egin, ordea; behetik gora begira geratu zitzaion.

—Zeren zain zaude!

—Oraintxe —erantzun zion Pikak, eta jaitsi egin zuen pixkanaka.

—Lo al zeunden, ala?

—Gogoan gorde nahi nuen une hori.

Begiratu erretiratu zuen Maitanek. Lekuz trukatu ziren. Iñakirentzat huskeria izan zen horma hura igotzea. Nabari zen askotan egiten zuela. Aldamenekora joan ziren gero, Maitanek goraino igo zezan. Hura bai zela errazegia Iñakirentzat. Zailago bat aukeratzeko agindu zion Maitanek. Izerdia egiten ikusi nahi zuen mutila. Aise samar burutu zituen, edonola, hango lanak ere.

—Nahikoa izango da, ezta? —esan zion Maitanek.

Oroko Santutegiaren beste aldeko arroken puntaraino joan ziren handik, materiala kotxean utzita. Harri zapal baten gainean eseri ziren, handik beha zitekeen bista paregabeaz gozatzera: Ametzaga, Murgia, Markina, Zarate... Haranaren alde hura guztia ikus zitekeen, ondo baino hobeto. Zigarrotxoa biltzen hasi zen Iñaki, patxada ederrean, zorrotxo batetik marihuana pixka bat atera zuenean.

—Jarriko diot brokoli pixka bat? —galdetu zion, hura biltzen amaitutakoan.

—Beldur pixka bat ematen dit, horrela, urdaila hutsik izanik... Zeharo utzita daukat.

—Gauza on guztiak utzi al dituzu, ala zer kristo? —galdetu zion Iñakik, irribarrea galdu gabe.

—Den-denak ez —erantzun zion Maitanek, bekainak goratuz.

Algara bat itzuri zitzaion Pikari.

—Orduan, zer?

—Zer, zer?

—Tortilla! Txanpiñoiekin ala gabe?

—Zuk ez al duzu ordu baterako joan behar?

—Eta?

—Hamabiak eta hogeia dira...

—Bi erretzeko ere badugu aski denbora!

Lehenengo zupadarekin flotatzen ikusi zuen bere burua Maitanek. Bigarrenarekin lebitatzen. Zer zen sentipen hura? Bat-batean hain arin sentitzea pisu zitzaizkion gauzak, kezka iturri ziren arazoak, burmuinaren hormen kontra talka egiten zuen ongi puztutako puxika baten antzera, hain zentzugabe, hain garrantzirik gabe dena.

Iñakiri begiratu zion, begira zeukan. Zupada bat eman zion Pikak porruari, eta Maitaneren ahoa bilatu zuen, birrikak hustu aurretik. Larritasunik gabeko ahoz ahokoa, arnasa oparitzea bezala, Maitaneri falta ez zitzaion arnasa, kezko arnasa, oxigenorik gabeko arnasa, arnasa zikina, arnasa kontaminatua, arnasa eztiki kontaminatua, eta gero, betetasun sentimendu hura ahoaren barnean, eta mingainen kateatzea jarraian, segida haren hurrengo elementu logiko gisa. Eskua jarri zion zakil hanpatuaren gainean. Titiak laztandu zizkion Iñakik.

—Kotxean sartuko gara? —kanpotik bezala ikusi zuen Maitanek, bere burua galdera hura egiten.

—Zer ordu da? —eskumuturrekoa begiratu zuen—. Joan beharra daukat, joder. Ostiralean, nahi baduzu... Libre zaude ostiralean? Nik ez daukat klaserik... Egun osoko plana egin dezakegu. Zer iruditzen Gasteizen geratzen bagara? Garai zaharrak berritu, pintxo batzuk jan, paseatu...

—Hotel batera joan...

—Hotel batera joan... —errepikatu zuen Iñakik irribarrez, beste musu bat ematera gerturatzen zen bitartean.

—ERLEAK IKUSTERA joan nahi omen duzu —esan zion Agusek.

—Tarte bat baldin badaukazu, e...

Etxe barrura sartu zen gizona, atarian utzirik Maitane. Sekulako zurrunbiloan bildurik zeukan gogoa. Nola arraio iritsi zen egokiera hartara? Ziur al zegoen Gasteizko plana egin egin nahi zuela? Gozoa izango zen brokolia, baina ez al zuen belar hark adoretuta nahi ez zuen lokatz batzuetan sartu zangoa? Eta zein izango ote ziren Iñakiren asmoak? Ez zuen bere emaztea eta haurrak abandonatu eta berarekin harreman serio bat hasi nahiko, ala?! Hotelaren planak nor ez zuen erakartzen, baina gero zer?

Erlezainaren bi traje zuri horietakoekin atera zen baserritik Agus, eta lurrera bota zituen, trapu zaharrak bailiran.

—Orain joan behar al dugu? —galdetu zion Maitanek.

—Egon lasai, ez dute ezer egiten eta.

Bere arropen gainean traje zuria janzten hasi zen Agus.

—Ongi al daude katakumeak? —galdetu zion Maitanek, lurretik berea jaso eta gauza bera egin bitartean. A zer piura izango zuen mozorro harekin...

—Bizirik.

Eskerrak, egin zuen bere kautan.

Casa Lafuentetik ametzen basoranzkoa hartu zuten, zuhaitz artean galdutako bi astronauta euren espazio-ontziaren bila. Ke-hauspoa zeraman Agusek eskuetan, zeinari bizpahiru aldiz eragin baitzion bidean zihoazela, laino nabar bat utziz eguzkiak argitutako bidezidorrean, apaizak barreiatutako intsentsua irudi.

—Eta hori? —galdetu zion Maitanek.

—Erleek erasorik ez jotzeko. Berezkoa dute defentsarako joera, jakingo duzu. Eztena sartuko diote, erlauntzera gerturatzen den edozein animalari, izan lau hankakoa edo bikoa. Kea baldin badago, ez. Suaren arriskuak aztoratuta, euren ezti erreserbak jaten hasten dira, ahalik eta azkarren indartu eta handik hanka egiteko, sutatik urrun erlauntz berri bat sortzera. Ke pixka batekin, lasai utziko gaituzte. Baina gehiegi botatzea ere ez da komeni, ea denek alde egingo duten!

Agusek huraxe zuela bere toki kuttuna pentsatu zuen Maitanek, jardun hori zuela maiteen. Ordura arte ez zizkion bi esaldi baino gehiagoko erantzunak aditu, eta bat-batean, hara zer azalpen.

—Ea ba —esan zion, iritsi zirenean—. Nahi duzu zuk ireki?

—Ez, ez, eskerrik asko. Begiratzearekin konformatzen naiz.

—Ba al dakizu erleren batek nektarra edo jana edo topatzen duenean, zer egiten duen? Zortziko etzan bat marrazten du airean gainerakoei abisatzeko.

—Infinituaren zeinua?

—Zortziko etzan bat.

Abaraska bat hartu zuen eskuetan Agusek. Hamar-hamabost erle atera ziren bertatik.

Bizpahiru kokatu zitzaizkion begien aurre-aurrean Maitaneri, aurpegia babesteko zeukan saretxotik ikusten zituen bere buruaren jiran, izugarritzko burrunba sortuz.

—Zikin-zikina dago, joder —esan zuen Agusek, abaraska seinalatuz—. Aldatu egin beharko dut.

—Eta ezta?

—Oso gutxi dago. Begira. Ikusten hemen?

Baietz esan zuen Maitanek, nahiz eta minihexagono guztiak hutsik zeudela iruditzen zitzaion. Zulora bueltan sartu zuen Agusek abaraska hura, eta aldamenekoa atera. Hura bai zegoela erlez josita; makina bat aireratu ziren. Urrats bat atzera egin zuen Maitanek.

—Zatoz. Ez beldurtu —esan zion Agusek, eta muturren aurrean jarri zion abaraska. Ehunka erle zeuden hexagonoen gainean harat-honat mugitzen—. Begira! Erregina da hori!

—Nola dakizu?

—Handiena delako. Ikusten?

Maitaneri ez zitzaion besteak baino askoz handiagoa iruditu. Begiratzen jakitea izango zen kontua.

—Ikusten dituzu kumeak? —azaldu zion hexagono barruan zeuden hazitxo moduko batzuk erakutsiz. Ez ziren jostorraz-buru bat baino askoz handiagoak.

Prozesua errepikatu zuen behin eta berriz: abaraskak banan-banan atera, ke apur bat bota, goitik behera behatu besoekin gorantz eta beherantz ekarrita, zikinkeraren bat erretiratu, eta barrura berriz.

—Herriaren esklaboa da hemen erregina —azaldu zion Maitaneri—. Erleek agintzen diote zer egin behar duen, eta badakizu zein den bere lana? Arrautzak jartzea. Ez du besterik egiten! Eta herria nazkatzen baldin bada, edo ikusten badute alferkerian dabilela, bota egingo dute erlauntzetik, eta beste erregina bat jaio dadin lan egingo dute. Ez al da aparta?

Bere saltsan zegoen Agus: pasioz hitz egiten ikusten zuen lehendabiziko aldia zen.

—Gustatu al zaizu esperientzia? —galdetu zion Maitaneri, bueltarako bidea hartu zutelarik.

—Interesgarria da, baina...

—Izututa zeunden.

—Izututa nengoen eskafandra eta guzti ere. Ez dizut gezurrik esango.

Irribarre egin zuen gizonak.

Trajeak kentzen ari zirenean ere kontu kontari segitzen zuen Agusek; ez zitzaion mingainetik gehiegi tiratu behar. Deskantsua hartu zuen Maitanek sauna hartatik libratuta. Bere buruaren izerdi-usaina iritsi zitzaion sudur-zuloetara, haize kirri atsegin hark ekarria. Dutxa bat beharko zuen.

—Zatoz —esan zion Agusek—. Gauza bat erakutsi nahi dizut.

Baratzera eraman zuen. Tomateak ziren nagusi alde eguzkitsu hartan. Aldamenean, identifikatzen asmatu ez zuen zuhaixka baten adarretik zintzilik plastikozko ur-botila bat ikusi zuen: inbutu bat zeukan bizkarrean txertaturik.

—Ba al dakizu zertarako diren? —galdetu zion Agusek—. Asiako liztorra harrapatzeko. Bi

hazbete garagardo beltz jarri botilaren barruan, eta zoro moduan joaten dira inbutuan barna liztor deabru horiek. Eta behin sartutakoan, ezin atera! Begira, hortxe duzu bat.

Likidotan hankaz gora ageri zen velvetina handi samar bat, zerraldo. Nazkagarria zen.

—Eta beste erleei ez al zaie garagardo beltza gustatzen, ala? —galdetu zion Maitanek, baserrirako bidea hartu ahala.

—Ez, ba! Hortxe dago gakoa.

Erlauntz osoak txikitzeko gaitasuna omen zuen Asiako liztorrak. Ondo ikasitako taktika zeukaten. Erlauntz bat topatuz gero, inguruan ibiliko zen hegan, eta erleak barruan gordeko ziren hura ikusita, kanpora ateratzeko beldurrez... Ahuldu egiten zen hala erlauntza pixkanaka, ez baitzen janaririk heltzen. Erleak makal zeudela usaintzen zuenean, orduan soilik sartzen zen Asiako liztorra, eta sekulako triskantza eragiten zuen: banan-banan hartu erleak, burua erauzi, abdomena kendu, eta enborra jaten zien.

—Guk langostinoekin egiten dugun moduan, gutxi gorabehera —azaldu zion Agusek.

—Joder!

Baserri atarian agurtu, eta bere estudiora sartu zen Maitane, Agusi eskerrak eman ostean. Velvetina haren irudia etorri zitzaion ustekabean, frigotik garagardo-lata hartu eta edalontzian hustu zuelarik. Ohi baino gutxiago gozatu zuen lehen tragoa. Basoan garagardoaz gain ezer ez zegoela jakinda ere, ezin saihestu begirada mesfidatia.

Bigarren tragoxka edan orduko, senarrari idazten jarri zen. “Dena ondo hortik? Ez duzu sinetsiko. Erlauntzak bisitatzen ibili naiz gaur, buzo eta guzti! Portzierto, mugikorra ez dabilkit ongi. Ziztuan bukatzen zait bateria. Itzalita eramango dut egunean zehar, badaezpada, bale? Bihar Gasteiza noa! Hiri pixka baten beharra daukat! Erosketa batzuk egin, tranbian ibili, zibilizazio pixka bat, badakizu... Gauean idatziko, ados?”

Segituan jaso zuen senarraren erantzuna. “Hemen dena kontrolpean. Gozatu!”.

Ez zen hain zaila, izatez.

Gautu baino lehen erlauntzera itzultzean zetzan gakoa.

BAKOITZA BERE KOTXEAN joatekotan geratuak ziren Iñaki eta biak, Maitanek haurrentzat oparitxo batzuk erosi nahi baitzituen aurretik, koartada gisa eta errua purgatzeko helburuz, ezer baino gehiago. Aspaldi ez bezain dotore jantzi zen, Lukianora iritsi zenetik ez bezala behintzat: soineko laranja motel loreduna, ilea buru gainean mototsean bildua, sandalia marroi dotoreak eta haiekin primeran ezkontzen zen poltsa erdi hippya, ezker sorbaldatik zintzilik.

Dato kalean gora eta behera ibili zen paseoan, jostailu-denda bat aurrez aurre tokatuko zitzaiolekoan. Giro zegoen Gasteizen, jende andana zebilen batera eta bestera, ostiral goiza izanagatik. Ibiltariaren eskulturaren parean, bere ibilia gerarazten saiatu zen Save the children gureko neska gazte bat:

—Baduzu minutu bat?

—Bazkidea naiz jada —esan zion Maitanek, nahiz eta gezurra izan. Amnesty International, Greenpeace, Médicos Sin Fronteras... Ez al zen, ba, nahikoa?

—A bai? Ba, mila esker zure laguntzarengatik —erantzun zuen neskatilak, kontzientziako harra piztu zion irribarre zabal-zabal batekin.

Kafe bat hartzera sartu zen Río kafetegian, eta ilea atontzeko aprobetxatu zuen komuneko buelta. Ezpainak doi margotu zituen, ostera. 10:30ak ziren. Mugitu beharra zeukan, umeak oparirik gabe utzi nahi ez bazituen. Kalera bueltatu zen, jostailu-denda bat non zegoen galdetzeko erabakia hartuta. Bi haurrekin zihoan emakume bat ikusi zuen, plastikozko poltsa banarekin eskuan, eta hari egin zion itauna. Foru Kalera bidali zuen, han omen zegoen Juguettos bat.

General Alavarekin izkinan, eskuorri bat eman zioten BBVako sukurtsalaren aurrean protestan ari ziren hogeitaka langileek: 3.976 kaleratze geratzeko, greba-egunera deitzen zituzten Espainiar estatu osoko euren lankideak. 3.976 kaleratze! Eta zenbateko irabaziak izan ote zituen BBVak aurreko urtean?, egin zuen berekiko Maitanek. Harrigarria egin zitzaion zortzi sindikatuk sinatutako eskuorriak halakorik ez ekartzea...

Hamaikak laurden gutxi! Ez zegoen denbora galtzeko... Emakume hark esandako bidetik abiatuta, Foru Kalerantz zuzendu zituen urratsak, eskerrak bertatik bertara zegoen. Denda barruan buelta azkar bat eman ostean erabaki zituen oparitxoak: lepokoak edota eskumuturrekoak egiteko koloretako aletxoek kutxatxo bat alabarentzat, eta Zomblie bat semearentzat. Ziurra, arrakasta.

Hamaikak bost gutxi ziren, bat-batean zalantzak erasan zionean. Ordura arte nora zihoan ezkututzen ari balitzaio legez bere buruari. Zer arraio ari zen... Komuneko zulotik behera bota behar al zuen, egun batetik bestera, azken hamalau urteetan ondutako guztia? Senarrarekin zeukan harremana, seme-alabak, bizitza sosegatu eta zoriontsu hura? Zertarako, gainera? Hotel bateko bi ordu segur aski ez hain gogoangarriren truke? Taberna batean ezkutatu eta goiza han igarotzeko tentazioa sartu zitzaion bat-batean: entzungor egin beharko zien Iñakiren mezuei eta deiei, Chardonnay batzuk irensten zituen bitartean, biharamuneko ajea bortitzagoa izan zedin hitzordura ez joategatik sentituko zuen damua baino. Pikutara! Ezin al zion bere buruari bi ordu eskaseko

dibertsioa ere oparitu, fereka-festa, lizunaldia, bidaia labur bat alegiazko denboraren makinan? Ez zen hainbesterako, joder!, eta gainera, inork ez zeukan ezer jakin beharrik, Gasteizen gertatzen dena Gasteizen geratzen da, bezatuko zuen kulpak nola-hala, pikante pixka bat bota behar zaio tarteka eguneroko izokin lehorregiari, zer arraio!

Korrika txikian abiatu zen, Andra Mari Zuriaren Plazarantz. Berandu zebilen!, eta hala ere Iñakiren arrastorik ez iritsi zenean. Kezka sartu zitzaion: ez ote zen Pika bera izango, azkenean, beldurrak edo kulpak edo dena delakoak bultzaturik, etxean geratzea erabaki zuena? Goizegi zen halako ondorioak ateratzeko: ez ziren hamaikak eta laurden ere...

Besazpiak usnatu zituen disimuluan, izerdi kiratsa aditzearen beldur... Bere burua behatu zuen, mugikorra selfie-ak ateratzeko moduan jarrita. Ez al zegoen gehitxo makillatuta? Beranduegi zen edonola, edozertarako. Ilea ezker eskuarekin harrotu pixka bat, eta poltsan sartu zuen mugikorra.

Hamaikak eta hogeia pasatxo ikusi zuen Pika urrutian, pauso azkarrekin gerturatzen. Han zetorren, Murgian elkartu zirenean zeukan antzeko janzkeraz. Jeans-ak, kamiseta mahuka motz berdekara bat, lehengo eguneko zapatilak. Zer kontatu behar zion bestela emazteari, ezta?, egin zuen bere artean Maitanek, alkandora zuria jantziz gero, derrepente, ostiral arrunt batean... Pika ez zen, gainera, alkandoratako mutila izan sekula santan.

Besarkada batez agurtu zuten elkar, musuko bidezko musu deskafeinatuei muzin eginez, eta Alde Zaharrean barneratu ziren Andra Mari Zuriaren Plaza alderik alde zeharkatu ostean, Aihotz Plazatik barrena igaroz. Gasteizko txoko kuttunenetakoa zuen plazatxo hura Maitanek, beti iruditu zitzaion xarma berezia zeukala. Aitzogile Kanean gora hartu zuten, baina noranzko finkorik gabe ari ziren paseoan egiazki, elkarren aldamenean jarrita, elkarren besoak talka txikiak eginez tarteka. Iñakiri eskutik heltzeko tentazioari eusteko alimaleko ahalegina egin behar izan zuen, eta kezka sentitu zuen, ezagunen batekin topo egin ahal izateak ematen ziona baino gehiago, Iñakiren aldamenean hain gustura sentitzeak eragindakoa. Kezka, eta harekin nahasirik, halako zoriontasun betegarri bat.

—Hau al da zure ostiraletako plana? —galdetu zion Maitanek—. Zure neska-lagun ohiren batekin Gasteiztik zehar paseatzea?

Irribarre bat itzuri zitzaion Pikari.

—Sarrian bertan geratzen naiz normalean. Baratzean jardun, etxea garbitu, bazkaria egin... Beti dago zerbait... Aspaldi zen Gasteiza etortzen ez nintzela, egia esanda.

—Eskalatzerak ere ez al zara joaten?

—Norekin, baina? Lanean dago mundu guztia...

—Lurtar gehienok ez ditugu hiru eguneko asteburuak, zer uste zenuen?

—Mendira joaten naiz batzuetan.

—Horretarako ez duzu lagunik behar.

—Touché.

Irribarre egin zioten elkarri.

—Gustura bizi zara Zuian, e?

—Niretzako paradisua da. Paraje eder horiek, mendian ibiltzeko aukera, eskalatzekoa...

—Neguak, gogor samarrak...

—Baina baita hemen ere! Eta gauza bat esango dizut: mendi aldean elurak alde ederreko magia dauka. Ez dakit. Erritmo kontua ere bada. Guztia geldoago doa han, ez dago hiriko presarik, ezta jende andanarik ere. Fondoko eskia egiten ere ikasi nuen!

—Udan eskalatu eta neguan eskiatu. Ezin geldirik egon, e, Pika?

—Badakizu nolakoa naizen. Ez dut inoiz jakin liburu bat hartu eta tximinia ondoan irakurtzen jartzen. Desberdinak gara horretan.

—Eta Amaia?

Lepoa biratu zuen Iñakik Maitaneren aldera. Ezustean harrapatu zuen itaun hark. Noiz aitatu ote zion, ba, emaztearen izena? Akordio inplizitu bat haustea bezalakoa izan zen haren izena aipatzea, bion artean eraikitako burbuila labanaz lehertzea bezalakoa. Zer esan nahi ote zuen galdera hark?

—Euskaltegian ezagutu nuen —hasi zen erantzuten, unearen magia neurri batean hautsi egin zela sentituz—. Klaseetara etortzen zen, eta...

—Bertakoa da?

—Sarriakoa. Euskara ikasi nahi zuen. Aitonak ez omen zekien besterik. Abadiñokoa zen! Fusilatu egin zuten, gerran, gudari ibili eta gero. Kontua da etxean gaztelaniaz egitera behartu zituela geroztik amonak, gerta zitekeenaren beldurrez. Patxiren garaian, badakizu, ez ziren txantxetan ibiltzen. Total, eten egin zen katea.

—Motibazioa latza izango zuen, historial horrekin.

—Ikaragarria. Sekulako indarra zekarren. Ziztuan ikasi zuen, bai.

—Eta baita irakaslearekin maitemindu ere.

Mutu geratu zen Iñaki, irribarre txiki bat ezkutatu ezinik. Bikote bat igaro zen beraien paretik, eskua bata bestearen ipurdiko poltsikoan sartuta zutela. Haiei so geratu ziren bi-biak, nola aldentzen ziren begira.

—Ez zenidan sekula deitu —bota zion Maitanek ezustean—. Ez didazu sekula deitu. Urte hauetan guztietan.

Begietara begira geratu zitzaion Iñaki.

—Zuk ere ez niri, Maita.

Isilune bat sortu zen bien artean, pausoari pausoa emanik airean desegiten joan zena. Santa Maria katedraleraino iritsiak ziren, obretan ziharduten. Erdi Aroko etxeak miretsiz hura inguratu, eta gorakoa hartu zuten: Montehermoso parean zeuden ohartzeko. Eskailera mekanikoen aldamentetik egin beherantz, eta San Pedro elizaren atzealdetik, Neptunoko terrazarekin egin zuten topo aurrez aurre. Hamabiak pasatxo ziren, bermutaren ordua. Mahai batean jarri ziren.

—Nire txanda da —esan zuen Maitanek, Iñakiren altxatzeko imintzinoa ikustean—. Bermuta? Muzin egin zion Pikak eztabaidatzeari, eta barrura sartu zen Maitane. Bi bermut soil

eskatzera zihoan, baina tripakiak zeuzkatela ikusi eta ezin izan zion eutsi: oso maite zituen Iñakik, duela hogeitun urte bai behintzat. Bermuta eta tripakiak, konbinazio arraroegia ez ote zen, zalantza haretzekin egin zuen mahairako bueltako bidea.

—Lehen behintzat asko gustatzen zitzaizkizun —esan zion Iñakiri, platertxo parean jarririk.

—Orain ere bai!

Sardexkarekin batzuk bildu eta zain egon gabe dastatu zituen.

—Bikainak! —esan zuen, eta tripaki gehiago arrantzatzen ari zen bitartean, gehitu zuen—: zuk etorri behar Donostiatik, taberna hau ezagutzeko. Marka da, gero!

—Auskalo! Hurrena zuk deskubrituko didazu beharbada Donostiako altxor ezkuturen bat— bota zuen Maitanek, eta esan ahala damutu egin zen, gonbidapen bat ezkututzen zuen esaldi hura ahoskatu izanaz.

—Nork daki... —erantsi zuen Iñakik irribarrez, hala ere.

Beste bermut bana, eta belarri errazio bat etorri ziren haren ostean. Nola gozatzen zuen Iñakik haiek eztarriratzen. Jatun ona zen oso, baina tripakiak, belarriak, zezen-buztana, txahal-masailak, muinak... Bereziki maite zituen. Horiek eta arrautza frijitua. Miretsirik gogoratzen zuen Maitanek, hogeitun urte lehenago Gasteizen egindako parranda haietako baten ostean, nola gosaldutako zituen arrautza frijitu pare, baldosa urdineko bere ikasle pisuko sukalde txiki hartan, goizaldeko orduak maindire artean elkarri katramilatuta igaro ondoren. Kontua ez zen gosaltzeko arrautza frijitu pare jatea, baizik eta haiek jateko modua: zuringoa ahoratzen zuen Pikak lehendabizi, zati ez oso txikitik banatuta, eta gorringoa geratzen zitzaionean oso-osorik —puztutako nenufaren lodi bat bezala platerean flotatzen—, koilara bat hartu eta kontu handiz azpitik sartuta, osorik irensten zuen, aho-sabaiaren kontra leher zedin utziz bonba delizios hura.

—Konfiantza handia dudan pertsonen aurrean soilik egiten dut, e? —esan zion 23 urteko Iñaki gaztetxo hark, lotsa pittin bat ezkutatu ezinik, bigarren arrautzari modu berean ekitera zihoalarik.

Maitagarria zen, joder.

Orduz geroztik arrautza frijitu jateko zeukaten moduaren arabera sailkatzen zituen pertsonak Maitanek. Berak bezala jaten zuen senarrak: gorringoa dastatzen zuen lehendabizi ogiarekin bustita, eta zuringoa gorringoarekin nahastuta irensten zuen gero. Hori zen ohikoena. Hori zen normala. Baina baziren zuringoa azkenerako uzten zuten frikiak; are, zuringoa jaten ez zuten mizkinak ere bai; gorringoa gustatzen ez zitzaizkien ez zegoen fidatzerik.

—Bazkaldu gabe ere pasatzeko moduan —esan zion Maitanek, eta burua altxatu zuen plateretik Iñakik.

—Txantxa da, ezta?

—Ez ba...

—Indarrak bildu beharko ditugu Salburuako hezeguneari buelta emateko, ala? Beste errazio pare bat behintzat...

—Hementxe?

—Nigatik bai!

Zertarako hasi orain denbora galtzen jate egoki baten bila? Zezen-buztana, eta piper bete pintxo bana eskatu zituzten. Tiramisua postrerako, ia osorik Iñakik jan zuena. Apetitua behintzat ez zuen galdu.

Unibertsitate inguruan aparkatua zuenez Iñakik kotxea TAO ordaintzea saihestearren, eta Artium azpiko parking-ean berriz Maitanek, berarena hartu zuten, Salburuara gerturatzeko. Bizikleta pareta eta prismatiko bana alokatu zizkieten euro batean bertako museoan, eta txirrinduan buelta egitera abiatu ziren.

—Ea oreinak ikusten dituzuen... Urte garai honetan ez dituzte adarrak izaten... Badakizue urtean behin erori egiten zaizkiela, ezta?

Heldulekurik gabeko egurrezko zubi zapal eta baxu bat igaro ondoren bistaratu zuten Betoñoko zingira: bi metro zabaleko bide asfaltatua zeukan buelta osoan, zeinak elkarren aldamenean pedalei eraginez joatea errazten baitzien. Berriz aho-zapore gozo hori, pentsatu zuen Maitanek, bi gurgipen gainean jarri eta mundua jateko gai zela sentitzea oster, berrogei urteak ondo beteta izanagatik ere.

Hegaztien behaketarako propio jarritako etxola bat begiz jo, eta barruan sartu ziren, bizikletak kanpoan aparkatuta. Prismatikoekin begiratu zuten beirarik gabeko leihotik at: ahateak, lertxunak, eta izena ere ezagutzen ez zieten beste hainbat hegazti ikusi ahal izan zituzten. Oreinik ez batere. Gorputza jiratu, eta Maitaneri so paratu zituen prismatikoak Iñakik, euren artean zegoen metro erdiko distantzia handiegia irudituko balitzaio bezala. Gauza bera egin zuen Maitanek, lagunaren mugimendua begi ertzarekin igarrita. Ezin tutik ikusi hala, jakina. Prismatikoak aurpegi paretik kendu eta elkarri begira geratu ziren aurrez aurre. Dena edo ezer ez gerta daitekeen une horietako bat. Aurpegia sotilki aurreratu zuen Maitanek, eta aski izan zen: musu luze eta likits batean katramilatu ziren, harik eta beste norbait txabolara sartzen sumatu zuten arte. Lurrera begira jarri eta kanpora atera ziren, gurutzatu zituzten bi neska gazteei diosalik egin gabe.

—Joango gara hotel batera? —galdetu zion Maitanek, bizikleta gainera igo ahala.

Salburua inguruko merkeren baten bila aritu ziren mugikorrean. Zeuden tokitik kilometro eta erdira zegoen Gorbea hostala zen aukerarik ekonomikoena, eta hala ere 38 euro gaua. Apaindura gutxiko eta itxura ilun samarrekoa, baina bizpahiru ordu pasatzeko nahikoa eta sobera, pentsatu zuen Maitanek; Iñakiri ez zitzaion gustatu, ordea. Izenagatik ote? Harreran ezagunen batekin topo egiteko beldurra? Ez zion galdetu. Check-in automatikoa zuen Hito hotela seinlatu zion Pikak, “zer iruditzen hau?”. Modernoa izan nahi zuen izar bateko hotel soila zen, zeinak Mondrianen estiloko erreprodukzioak baitzituen logeletan, Interneten ikusi ahal izan zituzten irudien arabera, urdin intentsuz margotutako ohatzeko horman paratuta, eta harekin ondo ezkontzen zen edredoi beixa maindire zurien gainean. Huraxe aukeratu zuten, Gasteiz erdiraino sartu behar izango bazuten ere hara heltzeko.

Kotxea hoteletik gertu samar aparkatzeko aukera izan zuten zonalde urdinean, txanpon batzuk sartuta. 18:00ak jotzeko zeuden, eta Iñakik afal ordurako buelta egin beharra zeukan: ez

zuten denbora sobran. Internet bidez egindako ordainketaren truke lortutako kodea idatzi atarian zegoen makinatxoan, eta barrura sartu ziren. Ez zegoen igogailurik eta oinez egin behar izan zuten hirugarren solairurainoko bidea. Logelako atean berriz ere kodea, eta barnean ziren jada: ekipajerik gabe datozenen kulpa sentipena batetik, hasiberriarena zirudien urduritasuna bestetik.

Arropak erantzten hasi gabe, elkarri begira geratu ziren ohearen oinetan, elkarrengandik metro erdira, irribarre herabe eta inozo hura aurpegian. Pikak eman zuen aurrerapausoa: urrats erdi bat Maitanerengana, eta eskuineko eskua haren masailera, leun. Begiak itxi eta aurpegia okertu zuen Maitanek, Iñakiren eskua zegoen aldera. Musu txiki bat eman zion kontrako masailean Iñakik, eta besarkada luze batean bildu ziren bi maitaleak. Aurrez aurre geratu ziren gero, bata besteari besaurretik helduta.

Eskuak lepo atzera eramanez soinekoa askatu zuen orduan Maitanek, egundoko trebetasunarekin. Bere oinetara erori zen, eta janzki hark lurrean osatzen zuen uztaitik libratuta hanka bat, urrun bidali zuen bestearekin. Goitik behera irristatu zitzaion behakoa Iñakiri.

—Ez naiz duela hogeit urtekoa —esan zion Maitanek, irribarre ospel batekin.

—Ezta ni ere —erantzun zion Iñakik, kamiseta erantzi ahala.

Sandaliak kendu zituen Maitanek, zapatilak Iñakik. Gerrikoa askatzen hasi zen Pika, baina eskuak samurki apartaturik, bere gain hartu zuen Maitanek lan hori. Galtzak jaitsi zizkion. Boxer urdin ilunen azpian, hanpatu gabe nabari zitzaion zakila. Elkarren aurrean jarri ziren berriz, parez pare, begietara so. Bularretakoa kendu zuen Maitanek, kuleroak jaitsi zituen, galtzontzilloak Iñakik. Dilindan zeukan hankartekoa, medikuaren aurrean balego bezala.

—Oso urduri nagoela uste dut —esan zion Iñakik.

—Ni ere bai —erantzun zion Maitanek, eta besarkada luze batean bildu ziren berriz.

Maitanek eskutik heldu, eta ohean etzanik, musuka hasi ziren eztiki, laztanen hartu-eman gozoan jardun zuten, harik eta Maitanek Iñakiren zakil hanpatua begiztatu zuen arte. Kondoia hartu zuen Maitanek mesanotxetik, baina hura ikusi orduko bigundu zitzaizkion ostera gogortasunak Iñakiri. Hasperen luze bat egin zuen:

—Sentitzen dut —esan zion Maitaneri.

—Ez da ezer gertatzen.

Eta Iñakiren bularrean pausatu zuen burua, hogeit urte lehenago egin ohi zuen eran. Besoarekin bildu zuen hark, eta halaxe egon ziren geldi-geldi, isiltasunean, Iñaki, sabai zuri homogeneousora begira, eta Maitane, begiak itxita, txoko hartan betiko geratzea desiraturaz, bular haren gainean lo egin, bular haren gainean esnatu, bular haren gainean jan irakurri amestu dutxatu bizi. Eta belarri azpian zeukan Iñakiren bihotzaren taupadei jarri zien arreta, adi, bi hots haiek adierazten zuten morse-mezua deszifratzea balitz bezala erleek etxera bueltatzen asmatzeko zeukaten azken aukera.

—Dutxatu egingo naiz —esan zion Iñakik—. Joan beharra daukat.

Eta altxatu egin zen ohetik.

LUKIANOKO BASERRIAN sartuta igaro zuen Maitanek biharamuna, etxera buelta egiteko egunaren bezpera. Ez zeukan kotxearekin atzera eta aurrera ibiltzeko ez adorerik ez gogorik, eta ez zen giro mendirako: lanbrotsu argitua zuen eguna, eta behe-lainoa pixkanaka desegin bazen ere, euri xehea ari zen bazterrak bustitzen, leunki, baina tairik gabe, goiz osoan zehar.

Maleta prestatzeko profitatu zuen. Barazkiz lagundutako arroz platerka bat eginez distraitu zuen bere burua. Alferrik. Erleak zeuzkan buruan. Erleen burrunba. Erleak hoska belarri-zuloetan. Erleak hozka mintzetan muinetan zainetan.

Mugikorren uhinak.

Pestizidak.

Aldaketa klimatikoari egoztea errua.

Sentitzen dut, laztana, ez dut etxerako bidea aurkitu; GPSak ez dabilta ongi, poloak urtzen hasi zirenetik.

Joder. Hogeitaz urte lehenago Donostiara itzuli izan ez balitz. Edota itzuliz gero ere Pikari deitzea erabaki izan balu. Non egongo lirateke? Zuian bertan? Munduko familiarik zoriontsuena osatuko ote zuten, lau seme-alaba, bi zakur eta hiru katurekin? Ala hogeitaz urte Gasteizen bizitzen egon eta gero, Donostiara itzuli gisa hartako oporraldi moduko batean eta beste norbaitekin adarrak jarri izango ote zizkion Iñakiri ere bezperan senarrarekin egin zuen bezalaxe, egindako hari adarrak jartzea deitzerik baldin bazegoen behintzat...

Zitada sartu eta hil.

Eztia eskaini eta pozoia eman.

Etxeko telefonoa bilatu zuen mugikorrean. Deitu. Moztu.

Robertori mezu bat idatzi zion. Agian, berarekin eta Gorkarekin igaro zezakeen larunbat gaua... Ez al ziren elkartzekotan geratu? Mamuak uxatzen lagunduko zion haien konpainiak, beste ezertan pentsatzea eragotziko zioten haien ateraldiek...

“Ostia, Maita, barkatu! Afaria dugu lagun batzuekin Izarran. Ez naiz gogoratu ere egin!”.

“Lasai, motel! Egongo gara hurrengoan”.

“Bestela etorri gurekin! Hori da! Etorri! Haiei ez zaio axolako! Oso jatorrak dira!”.

“Keba, keba... Lasai ibili”.

“Seguru?”.

“Seguru!”.

“Tira. Nahi duzuna. Oso goiz al zoaz bihar? Agurreko bermuta har genezake...”.

“Elkartuko gara beste batean. Etorri Donostiara Gorkarekin, edo Gorkarik gabe, nahiago duzuna, eta egingo dugu bazkari bat edo...”.

“Ados, laztana! Portzierto, ondo joan al zaizu Iñakirekin? Bueno, kontatuko didazu elkartzan

garen hurrengoan, ezta? Uda honetan hots egingo dizut, sinfalta. Geratu behar dugu uztailean edo abuztuan edo... Beranduenez irailean, e!”.

“Nahi duzunean”.

“Muxu bat, laztana! Laster arte!”.

Altxatu egin zen ohetik, falta zitzaizkion puska gutxi horiek biltzen hasi, mesanotxeko liburua, mugikorraren kargagailua, lburprofenoak... Etxera bueltatuko zen, eta kito. Horixe egin zezakeen: egun bat aurreratu itzulera. Total, zer geratzen zitzaion han egiteko? Zeren zain zegoen? Zer espero zuen gertatzea? Zer nahi zuen gertatzea?

Eta berak?

Zer egin nahi zuen berak?

Etxera bueltatu. Etxera bueltatu eta kito.

Hamalau egun eta gero, zer dela eta orain halako presa?, galdetuko zion senarrak. Hura ezagututa seguru ongietorri kartel bat edo eskulanen bat edo zer edo zer egiten jarriak zituela umeak. Ez bazituen loreak erosi... Zertara joango zen bezperan hura guztia izorratzera?

Ohean etzan zen mugikorrari begira. Hantxe zegoen Gorbeiaiko gurutzearen argazkia, Iñakiren WhatsApp-ean. Nola ote zegoen bera? Eta mezuren bat bidaltzen bazion? “Gertatuak gertatu, zoragarria izan zen”. Supr, supr, supr. “Zoragarria izan zen”, berridatzi zuen. Eta haren emazteak irakurriko balu? Utikan! Zerbait kriptikoagoa jar zezakeen, baina zer! Egunotan atera zituen argazkiak begiratzera jarri zen. Paraje ederrak ziren haiek, inondik inora. Gorbeiaiko argazkiekin egin zuen topo. Igo zuen azkenean! Hainbeste urte eta gero... Eta gurutzearan ateratako argazkia jartzen bazuen berak ere WhatsApp-eko profilean?

“Iñaki Pikabea is writing...”. Bat-batean, atera beharrean taupaka jarri zitzaion bihotza.

Zain geratu zen.

Zer nahi ote zuen?

Minutu erdi igaro zen: ezer ez. Beste norbaiti idazten ari ote zen? Beste norbaiti idaztean ere ateratzen al zen mezu arraio hura norberaren WhatsApp-ean?

Bi minutu, bost minutu. Hamar minutu.

Hogei minutu.

Deus ez.

Etxeko telefonoa bilatu bere kontaktuen artean, eta “deitu” botoia zanpatu zuen.

SEIAK BOST GUTXI ziren iratzarri zenean, eta hala ere logura guztiz galdua zeukala iruditu zitzaion Maitaneri, nahiz eta bost ordu eskas lo egin izango zituen, gehienera jota. Ilun zen, artean, kanpoaldean, baina ez zitzaion asko falta egunari argitzeko. Leihoen egurrezko ateak ireki eta ekialdetik poliki etorriko ziren lehen izpiei itxarotea baino plan hoberik ez zitzaion bururatu.

Ohean etzan zen, komunetik pasatu eta gero. Primeran ikusten zuen handik zerua, beltzetik urdinerako bidean jarria ordurako. Aurki zen egunsenti. Loak hartu zuen ustekabean, eta esnatu zenerako, goizeko hamarrak ziren.

Kafe bat behar zuen. Estudioa apur bat txukundu, kuxin eta tramankulu denak bere tokian jarri, eta erratza pasa zuen, italiarra zitzuka sentitu arte. Bukatua zen bere egonaldia, akabo oporrak, amaitua arnasaldia. Eta orain zer? Etxera bueltatu eta kito? Etxera bueltatu eta kito.

Kafe-makina garbitu ostean hasi zen bere puskak kotxean sartzen. Bazeukan haurrak ikusteko gogoia, nola ez!, baita senarra ere, eta hamabost egun haiekin aski kargatua zuen bateria, egun betiberdinen segida puska batean aguantatzeko. Hori al zen, ordea, egin behar zuena? Aguantatu? Ez zen horrenbesterako, eta bazekien.

Baratzean ari zen Agus jo eta ke, ordaintzera gerturatu zenean.

—Elena! —egin zion garrasi emazteari, eta baserri barrutik irten zen hura, katakume bel-beltza eskuetan zekarrela.

—Ba al zoaz? —galdetu zion Maitaneri.

—Beharko. Agortu zait denbora.

—Ondo egon zara, ezta?

—Oso ondo. Bueltatu eta guzti egingo naiz igual besteren batean.

—Badakizu non gauden...

—Eta hau? —galdetu zion, katakumearen burua laztanduz—. Onik atera da orduan?

—Ikusten duzu... Seguru ez duzula etxera eramane nahi?

Muxu eman zion Maitanek buruan katakumeari.

—Seguru —erantzun zion, gero.

Irribarre egin zuen Elenak, eta baserri barruan sartzen hasi zen.

—Oraintxe ekarriko dizut faktura.

Atzera begiratu gabe irten zen Lukianotik, ez zuen paraje eder haiei begira alferrikako nostalgietan erori nahi: Aperregiko bidea eskuinean utzi, Bitoriano igaro, eta Murgian zen ordu laurdenean, herria erdirik erdi igarotzen zuen errepidean, semaforoan geratuta. Mugikorra atera zuen. Ez deirik, ez mezurik. Ordulariari begiratu zion: eguerdiko hamabiak eta laurden. Udaletxeko plazako ume-parkean egon zitekeen Pika, lasai asko, hurrekin jolasean; edo kafetegiko terrazan, beharbada, bermuta hartzen emaztearekin. Martxa moteldu zuen paretik igaro zenean. Ez zebilen jende gehiegi, igande eguerdia izanagatik, eguzkitsu egonagatik. Baziren umeak parkean jolasten, baziren bikote pare bat terrazan jesarrita ere, emakume helduen hirukote bat solasean, agure bat

egunkaria irakurtzen...

San Miguel eliza igaro, zahar-etxea atzean utzi eta Gasteizerako autobidea hartu zuen.
Ordu eta erdian Donostian izango zen.